

**EUSKADIKO
GIZARTE AURREIKUSPEN
OSAGARRIAREN TXOSTENA**

**FINANTZA-POLITIKAKO ETA GIZARTE-AURREIKUSPENEKO
ZUZENDARITZA
OGASUN ETA FINANTZA SAILA**

**2024.
URTEA**



2024. URTEKO LABURPENA

Balantze-zifra. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ondarea errekor historiko batera iritsi zen, **30.826 milioi eurotan** kokatu baitzen. Ia 2.000 milioi euroko hazkundera izan zuen, eta horrek % 7 inguruko gehikuntza adierazten du aurreko ekitaldiko zifrarekiko.

Ekarpenen bidez jasotakoaren eta BGAEek beren aurreikuspen-planen bidez prestazio eta erreskate gisa ordaindutakoaren arteko aldea 15 milioi euroko saldo positiboa izan da. Hazkunde hori, batez ere, aurreikuspen-planen multzoak urtean zehar lortutako errentagarritasun positiboari zor zaio.

Ikuspegi makroekonomikotik, ondare hori 2024an zenbatetsitako EAEko BPGaren % 31,68 da (97.293 milioi euro prezio korronteetan, Eustatek 2025eko martxoan argitaratutako datuaren arabera).

Bazkide kopurua. Aurreikuspen-planetan parte hartzen duten pertsonen kopurua litzateke; kasu honetan, 1.311.494. Kopuru horretan bikoiztasunak egon daitezke, pertsona berak hainbat aurreikuspen-plan izan baititzake sinatuta.

Bazkideak. BGAE bakoitzaren esparruan, pertsona bakoitza behin bakarrik zenbatzen da bazkide gisa, nahiz eta erakunde berean aurreikuspen-plan bat baino gehiago harpidetuta izan. Irizpide horri jarraikiz, bazkideak 1.178.891 dira orotara, hori baita BGAEetan dauden bazkideen guztizko kopurua. Kopuru horretan ere bikoiztasunak egon daitezke, pertsona bera bazkidea izan baitaiteke BGAE batean baino gehiagotan; halakoetan, bazkidea den erakundeen kopurua adina aldiz zenbatzen da zifra horretan.

Dena den, BGAEek Bazkideen Fitxategi Orokorriari emandako datuek aukera ematen dute adierazitako zenbatekoetan gertatzen diren bikoiztasun guztiak ezabatzeko. Hori horrela, aurreikuspen-planak zituzten BGAEetan 2024ko abenduaren 31n babestu ziren bazkideak 863.146 izan ziren (EAEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren % 45, Eustatek argitaratutako datuen arabera).

Ekarpenak. BGAEei egindako ekarpen ekonomikoak **mila milioi eurotik** gorakoak izan ziren. Kopuru horretatik, aurreikuspen-planak zituzten BGAEek 880 milioi euro bildu zituzten Gizarte Segurantzaren kontingentziekiko osagarriak emateko, eta % 4ko hazkundera izan zuten aurreko ekitaldikoekin alderatuta. Beste 143 milioiak gizarte-aurreikuspeneko beste modalitate batzuk estaltzeko kuotak izan ziren. Dena den, bilakaera desberdina izan da BGAEren modalitatearen arabera. Izan ere, enplegu-modalitateko BGAEei egindako ekarpenengatiko eta kontribuzioengatiko diru-sarrerak % 6 gehitu dira, eta banakako modalitateko BGAEei egindako ekarpenak, berriz, % 2.

Prestazioak. BGAEek 847 milioi euro ordaindu zituzte prestazioetan. Zenbateko horretatik, aurreikuspen-planak zituzten BGAEek 735 milioi euro bideratu zituzten Gizarte Segurantzaren kontingentziei lotutako estaldurak osatzera, eta % 6ko gehikuntza izan zuten aurreko urtean ordaindutako zenbatekoarekin alderatuta. Era berean, 112 milioiko prestazioak egon ziren beste kontingentzia batzuetarako.

Kobratzeko modalitateak. Enpleguko BGAEetan, kobratzeko modurik zabalduena errenta aktuariala da (% 60); hori bat dator BGAEen helburu sozialarekin. Aitzitik, banakako

BGAEEtan joera nagusia da prestazioak kapital gisa kobratzea; hala, jasotakoaren % 78 kapital moduan jaso da.

Erreskateak. Erreskateagatik gizarte-aurreikuspeneko sistema osagarritik kendutako zenbateko osoa –prestazioen bat eragin aurretik eskubide ekonomikoak aurretiaz xedatzean– 131 milioi eurokoa izan zen. Horrek esan nahi du % 6ko gehikuntza izan zuela aurreko ekitaldian erreskatatutako zenbatekoaren aldean, eta kontrastea nabarmena izan zela erreskateek 2014tik 2021era bitartean izandako murrizketa nabarmenarekin alderatuta.

Errentagarritasuna. Banako aurreikuspen-planek % 6,06ko batez besteko errentagarritasun haztatua lortu zuten. Horien artean, errenta aldakorreko banakako planek izan zuten urteko batez besteko errentagarritasun haztatu handiena (% 15,12), eta, ondoren, «Beste batzuk» inbertsio-bokazioa zuten planek (% 8,35). Bestalde, inbertsio-orientazio nagusiko banakako aurreikuspen-planek, errenta finko mistoko planek, % 4,33ko batez besteko errentagarritasun haztatu positiboa lortu zuten.

Enpleguko planen multzoak lortutako batez besteko errentagarritasun haztatua % 7,18koa izan zen.

Hala ere, kontuan izan behar da legediak aukera ematen diela enplegu-erakundeei, betiere eskakizun jakin batzuk betez, beren errenta finkoko zorro negoziagarria kostu amortizatuan kontabilizatzeko. Horrek, ordea, zaildu egiten du errentagarritasunen zuzeneko konparazioa egitea zorro hori merkatu-balioan kontabilizatu behar duten erakunde indibidualekin.

Inbertsioak. Bazkideen % 66k, adina edozein dela ere, errenta finko mistoko planak aukeratzeko joera dute –plan horietan ez da % 30era iristen errenta aldakorreko aktiboetan egindako inbertsioa–. Ehuneko hori % 92ra iritsi da enplegu-planetan.

Enpleguko BGAEen eta banakako BGAEen funtsen % 38 etxeko merkatuan inbertituta daude (Espainiako estatuan); % 47 euroguneko herrialdeetan; eta gainerako % 15 eurogunetik kanpoko herrialdeetan.

Era berean, aurreikuspen-planak dituzten BGAEen funtsen erdia errenta finkoko tituluetan inbertituta dago, aurreko urtekoaren antzeko ehunekoetan. Halaber, % 11 inbertituta daude errenta aldakorreko tituluetan; % 32 inbertsio-funtsetan; % 5 eskudirutan eta beste aktibo likido baliokide batzuetan; eta gainerako % 2a, berriz, aurreko kategorietan sartuta ez dauden beste aktibo mota batzuetan.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren (CNMV) irizpide bera erabiliz gero, errenta aldakorreko inbertsio-funts katalogatuak konputatuko lirateke errenta aldakor gisa (% 19). Aurrekoaren ondorioz, enpleguko BGAEen eta banakako BGAEen funtsen % 30 errenta aldakorrean inbertituta egongo lirateke 2024an, aurreko ekitaldiaren antzeko terminoetan.

Bestalde, prestazioengatik konpromisoei erantzuteko aurreikuspen-planak dituzten BGAEek eratutako funts guztien % 6,1 inguru inbertituta daude egoitza soziala EAEn duten jaulkitzaileen aktiboetan.

Administrazio-gastuak. Banakako BGAEetako batez besteko administrazio-gastuen ehunekoak % 1,15era igo zen. Horrek esan nahi du % 9ko murrizketa egon zela aurreko ekitaldiarekiko, BGAEek beren bazkideei administrazio-gastuengatik kobratzen dizkieten ehunekoetan izandako murrizketa dela-eta, 13/2024 Dekretua indarrean jartzearen



ondorioz (13/2024 Dekretua, otsailaren 13koa, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei buruzko hainbat dekretu aldatzekoa). Ekarpen definituko enpleguko BGAEen batez besteko administrazio-gastuen ehunekoa, bestalde, % 0,83koa izan zen; beraz, % 5eko beherakada izan zuen aurreko ekitaldiarekiko, kasu horretan ere aipatutako dekretua indarrean jartzearen ondorioz, zeinak etorkizuneko pentsio handiagoak eragingo baititu, bazkideen mesedetan. Aurrekoak esan nahi du banakako BGAEetan egotzitako administrazio-gastuen batez besteko ehunekoa % 39 handiagoa dela enpleguko BGAEek ekarpen definituko enplegu-planetan egozten dituzten batez besteko gastuen ehunekoa baino.

Bestalde, enpleguko lau BGAE sektorialen administrazio-gastuen batezbestekoa –enpleguko BGAEen ondare osoaren % 80 dira eta modalitate horretako bazkideen % 92 biltzen dituzte– % 0,41ekoa da. Horrek erakusten du banakako BGAEek egozten dituzten administrazio-gastuen ehunekoak ia hirukoiztu egiten duela enpleguko lau BGAE sektorialetan egozten diren gastuen ehunekoaren batezbestekoa.

Generoa. BGAEetan genero-arrakala ageri da, gizon bazkideen kopurua handiagoa delako emakume bazkideena baino, eta emakumeek egindako ekarpenen eta jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa txikiagoa delako gizonek egindako ekarpenen eta prestazioen batez besteko zenbatekoa baino. Prestazioen kasuan, gizonek jasotako batez besteko zenbatekoa % 43 handiagoa da emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoa baino.

Biztanleria okupatua: EAEko biztanleria okupatuaren % 25ek soilik dituzte enplegu-aurreikuspeneko sistema osagarriak, eta lurralde historikoen arabera duten banaketa ez da uniforme. Bestela esanda, EAEko biztanleria okupatuko 4 pertsonatik 3k oraindik ez daukate enplegu-modalitateko pentsio-sistema osagarriak.

AURKIBIDEA

1. BGAE-AK 2024KO EKITALDIAN	1
1.1. BGAE kopurua, modalitatearen arabera.....	1
1.2. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen balantze-zifra	3
1.3. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako bazkideen kopurua.....	3
1.3.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako bazkideen adina	4
1.3.2. Enpleguko aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako bazkideen adina	4
1.3.3. Banakako aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako bazkideen adina	5
1.4. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenak eta prestazioak	6
1.4.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenak	6
1.4.2. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako bazkideen ekarpenen maila eta gastu fiskala	7
1.4.3. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako bazkideen kontingentziengatiko prestazioak	11
1.4.4. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen prestazioak kobratzeko modua ..	15
1.4.5. Enpleguko BGAEen prestazioak kobratzeko modua	16
1.4.6. Banakako BGAEen prestazioak kobratzeko modua	16
1.5. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako erreskateak	17
1.6. Enpleguko BGAEek ematen duten babes-mailari buruzko ikuspegi orokorra.....	17
1.7. Laburpena, generoaren ikuspegitik.....	18
2. AURREIKUSPEN-PLANAK DITUZTEN BGAE-EN ORAINTSUKO BILAKAERA	20
2.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen kopuruaren bilakaera	20
2.2. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen balantze-zifraren bilakaera	21
2.3. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako bazkide-kopuruaren bilakaera	21
2.4. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenen eta prestazioen bilakaera	22
2.4.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenen bilakaera	22
2.4.2. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen prestazioen bilakaera	23
2.5. BGAEen erreskateen zenbatekoaren bilakaera.....	23
2.6. BGAEen ekarpenen, prestazioen eta erreskateen bilakaera	24
3. AURREIKUSPEN-PLANAK DITUZTEN BGAE-EN DIMENTSIOA	24
3.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen dimentsio ekonomikoa	24
3.2. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen tamaina, haien ondarearen arabera	26
3.3. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen tamaina, bazkide-kopuruaren arabera	26
3.4. Enplegu-planen modalitateak, ekarpenen eta prestazioen araubidearen eta enpresa anitzeko planen arabera	27
3.5. Enpleguko aurreikuspen-sistemak, biztanleria okupatuari dagokionez	28
4. BGAE-EN KUDEAKETA EKONOMIKOA	29



4.1.	Banakako modalitateko aurreikuspen-planen errentagarritasuna	29
4.2.	Enplegu-modalitateko aurreikuspen-planen errentagarritasuna.....	31
4.3.	Inbertsio-orientazioa, aurreikuspen-planen bazkideen adinaren arabera	31
4.4.	Inbertsio-orientazioa, enpleguko planen bazkideen adinaren arabera	34
4.5.	Inbertsio-orientazioa, banakako planen bazkideen adinaren arabera.....	34
4.6.	Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen inbertsioen egitura.....	35
4.7.	Enpleguko BGAEen inbertsioen egitura	36
4.8.	Banakako BGAEen inbertsioen egitura	36
4.9.	Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen inbertsioa EAEn	37
4.9.1.	Enpleguko BGAEek EAEn egindako inbertsioa	37
4.9.2.	Banakako BGAEek EAEn egindako inbertsioa	37
4.10.	Aurreikuspen-planak dituzten BGAEek EAEn zor publikoan egindako inbertsioa.	38
4.11.	BGAEen inbertsioak jasotzen dituzten EAEn enpresa nagusiak.....	39
4.12.	Administrazio-gastuak.....	39
5.	AURREIKUSPEN-PLANIK GABEKO BGAE-AK.....	41
6.	2024KO GAINBEGIRATZE-LANA.....	42

1. BGAE-AK 2024KO EKITALDIAN

1.1. BGAE kopurua, modalitatearen arabera

2024an, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde (BGAE) operatiboak 103 ziren Euskadin. Horietatik 68 aurreikuspen-planak dituzten erakundeak dira; hau da, aurreikuspen-planen bidez, Gizarte Segurantzaren prestazioen osagarri diren prestazioak ematen dituzte. Gainerako 35 erakundeek aurreikuspen-planik gabeko BGAEak konfiguratzeko dituzte, eta hainbat arrisku-mota estaltzen dituzte: heriotzak, suteak eta bestelakoak.

1. koadroa			
BGAEEa	Modalitatea	Erakunde kopurua	%/guztizkoa
aurreikuspen-planekin	Elkartua	2	% 1,9
	Enplegukoa	38	% 36,9
	Enplegukoa lehentasunezkoa	3	% 2,9
	Banakakoa	25	% 24,3
	Guztizkoa	68	% 66,0
aurreikuspen-planik gabe	Bereizi gabeko modalitatea, aseguru-jarduerarik gabe / heriotzak	28	% 27,2
	Bereizi gabeko modalitatea, aseguru-jarduerarik gabe / Sutearo	1	% 1,0
	Bereizi gabeko modalitatea, aseguru-jarduerarik gabe / garraioak	1	% 1,0
	Bereizi gabe / heriotzak	1	% 1,0
	Gizarte-prestazioak	4	% 3,9
	Guztizkoa	35	% 34,0
	GUZTIRA	103	% 100,0

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Aurreikuspen-planik gabeko 35 BGAEak oso ondare-dimentsio txikia duten erakundeak dira, aurreikuspen-planak dauzkaten 68 BGAEekin alderatuta.

2. koadroa				
BGAEd	Modalitatea	Erakunde kopurua	Balantze Zifra (€)	%/gutzizkoa
aurreikuspen-planekin	Elkartua	2	21.254.577,47	% 0,07
	Enplegukoa	38	4.724.298.744,55	% 15,31
	Enplegukoa lehentasunezkoa	3	12.264.881.049,30	% 39,75
	Banakakoa	25	13.816.122.401,27	% 44,77
	Gutzizkoa	68	30.826.556.772,59	% 99,90
aurreikuspen-planik gabe	Bereizi gabeko modalitatea, aseguru-jarduerarik gabe / heriotzak	28	23.582.137,63	% 0,08
	Bereizi gabeko modalitatea, aseguru-jarduerarik gabe / Suteak	1	4.228.527,91	% 0,01
	Bereizi gabeko modalitatea, aseguru-jarduerarik gabe / garraioak	1	1.619.550,75	% 0,01
	Bereizi gabe / heriotzak	1	178.843,56	% 0,00
	Gizarte-prestazioak	4	1.572.814,04	% 0,01
	Gutzizkoa	35	31.181.873,89	% 0,10
	GUZTIRA	103	30.857.738.646,48	% 100,00

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Aurreikuspen-planik gabeko BGAEen balantze-zifraren ehunekoa txikia da BGAE guztien balantze-zifra osoarekiko; gainera, erakunde horiek arrisku jakin batzuk estaltzeko jardura egiten dute, eta ez dira inola ere pentsio-sistema publikoaren pentsio osagarritzat hartzen. Hots, BGAE horiek ez dira, oro har, bigarren edo hirugarren zutabe modura izendatzen denaren tresnak egituratzen dituzten erakundeak.

Aurrekoa kontuan hartuta, txosten hau nagusiki zentratuko da Gizarte Segurantzaren prestazioen osagarri direnak ematen dituzten 68 BGAEetan, Euskadiko aurreikuspen osagarriaren diagnostikoa egiteko. Diagnostiko hori autonomia-eremuko erakunde guztien multzoa izango da, sistema publikoaren osagarri diren pentsio-sistemak –batez

ere erretirokoak– egituratzeko. Gainerako erakundeak ez dira esanguratsuak ondare-bolumenari dagokionez, baina zeregin sozial garrantzitsuak dute.

Horregatik, txosten honen amaieran, berariazko atal bat eskainiko zaie bazkidearen ondasunek izandako kalte-galerak estaltzen dituzten BGAEei, kalte-galerok ohiko etxebizitzan, ukuiluetan, biltegietan, pabiloietan, zerrategietan, labeetan, errotetan, etxeko ostilamenduan, lan-tresnetan, ganaduan, uztetan, basoetan, ontzietan, ibilgailuetan edo bere lan-jarduerari edo ogibideari lotutako beste edozein ondasunetan gertatzen direnean, baita ehorzketaren ondoriozko gastuak eta zerbitzuak ere.

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEak, izaera eta bazkideen artean dagoen lotura kontuan hartzen bada, honela sailkatzen dira: banakakoak, enpleguak eta elkartuak. Bestalde, enpleguak BGAEek enplegu lehentasunezko BGAE kalifikazioa lortu dezakete, baldin eta eskakizun jakin batzuk betetzen badituzte; besteak beste, horien jatorria eta eraketa hitzarmen edo enpresa-itun bidezko izatea, bazkideen sarreraren diskriminaziorik ezaren printzipioa aplikatzea, eta prestazioa ahal izanez gero errenta gisa jasotzea. Horrela, gizarte-aurreikuspen osagarriaren garapenaren funtsezko elementu dira etorkizunean.

Enpleguak 41 BGAEtatik 3k enplegu lehentasunezko BGAE kalifikazioa lortu dute: LAGUNARO, ENPLEGU LEHENTASUNEZKO BGAE; GEROA PENTSIOAK, ENPLEGU LEHENTASUNEZKO BGAE; eta ELKARKIDETZA, ENPLEGU LEHENTASUNEZKO BGAE.

Nabarmendu behar da 2024an Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan inskribatu dela Etorkizuna, Enplegu BGAE.

Bizkaiko Enpresarien Konfederazioak (CEBEK) sustatu du BGAE hori, jakinik enplegatzaileen eta enplegatuen eskura tresna bat jartzeko beharra eta aukera dagoela, pertsona horiek guztiek borondatezko gizarte-aurreikuspenaren arloan egiten dituzten ahaleginak bideratzeko.

Hasiera batean, enplegu gizarte-aurreikuspeneko plana sartuko da erakundearen. Plan horretan, Bizkaiko Etxegileen eta Higiezinaren Sustatzaileen Elkarteak (ASCOBI) sustatutako **eraikuntzako** hitzarmen kolektiboan gizarte-aurreikuspenari dagokionez jasotakoa gauzatuko da.

Fundatzaileen helburua da erakundeak integratu ahal izatea Bizkaiko Lurralde Historikoko beste sektore batzuetan edo beste lurralde historiko batzuetan enplegatutako pertsonen kolektiboak, baldin eta hala erabakitzen badute beren hitzarmen kolektiboen, enpresa-akordio edo -itunen edo enplegatzailearen borondatezko atxikimenduaren ondorioz (metala, sektore kimikoa, ostalaritza, bidaia-agentziak, elikagaien banaketa...).

Era berean, azpimarratu behar da lehentasunezko gizarte-aurreikuspen osagarriko planak sortu direla **langile autonomoentzat**. Plan horiek Euskadiko hiru merkataritza-ganbarekin lankidetzan jarri dira martxan, langile autonomoen artean enplegu-aurreikuspen osagarria orokortzen laguntzeko.

1.2. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen balantze-zifra

3. koadroa

Modalitatea	Erakunde kopurua	Balantze Zifra (€)	%/guztizkoa
Elkartua	2	21.254.577,47	% 0,1
Enplegukoa	38	4.724.298.744,55	% 15,3
Enplegukoa lehentasunezkoa	3	12.264.881.049,30	% 39,8
Banakakoa	25	13.816.122.401,27	% 44,8
Guztizkoa	68	30.826.556.772,59	% 100,0

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Enpleguko BGAEen balantze osoaren zifra (16.989 milioi euro) 3.000 milioi euro handiagoa da banakako BGAEen balantze osoaren zifra (13.816 milioi euro) baino. Ehunekotan, enpleguko BGAEen balantze osoaren zifra % 55 da, eta, aldiz, banakako BGAEen zifra aurreikuspen-planak dituzten BGAE guztien balantze osoaren % 45 da.

Aurreikuspen-planak zituen BGAE baten batez besteko balantze-zifra 453 milioi eurokoa zen 2024an. Banakako BGAEen kasuan, batez besteko balantze-zifra 553 milioi eurokoa zen, eta Enplegukoena (lehentasunezkoak eta ez lehentasunezkoak) 414 milioi eurokoa. Datu horiek argi erakusten dute banakako BGAEen batez besteko balantzea 100 milioi handiagoa dela enpleguko BGAE guztien batez besteko balantzea baino.

1.3. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako bazkideen kopurua

4. koadroa

Modalitatea	Erakunde kopurua	Gizonezko bazkideak		Emakumezko bazkideak		Bazkide kopurua
		Kopurua	%/guztizkoa	Kopurua	%/guztizkoa	
Elkartua	2	1.058	% 0,16	214	% 0,04	1.272
Enplegukoa	38	72.128	% 11,22	102.466	% 19,11	174.594
Enplegukoa lehentasunezkoa	3	245.065	% 38,13	150.516	% 28,08	395.581
Banakakoa	25	324.541	% 50,49	282.903	% 52,77	607.444
Guztizkoa	68	642.792	% 100,0	536.099	% 100,00	1.178.891

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

2024an, aurreikuspen-planak zituzten BGAEetan sartutako bazkideak 1.178.891 ziren. Azterketa genero-ikuspegitik eginez gero, ikusten da bazkideen % 55 gizonak direla eta % 45 emakumeak, aurreko ekitaldietan gertatzen zen bezalatsu.

2024an aurreikuspen-planak zituen BGAE bateko bazkideen batez besteko kopurua 17.337koa zen. Banakako BGAEetan, batezbestekoa 24.298koa zen, eta enpleguko BGAEen multzoan, berriz, 13.907koa. Banakako BGAEetako bazkideen batezbestekoak ia bikoiztu egiten du enpleguko BGAEen eremuan dagoen batezbestekoa.

1.3.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako bazkideen adina

5. koadroa

Bazkideak	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa	%/guztizkoa
0-20 urte	2.878	1.786	4.664	% 0,4
21-25 urte	12.624	9.121	21.745	% 1,7
26-30 urte	22.540	21.011	43.551	% 3,3
31-35 urte	33.292	31.674	64.966	% 5,0
36-40 urte	54.144	44.909	99.053	% 7,6
41-45 urte	75.748	63.450	139.198	% 10,6
46-50 urte	107.115	87.264	194.379	% 14,8
51-55 urte	109.396	87.083	196.479	% 15,0
56-60 urte	103.894	87.243	191.137	% 14,6
61-65 urte	84.280	76.705	160.985	% 12,3
65 urtetik gora	109.488	85.849	195.337	% 14,9
Guztizkoa	715.399	596.095	1.311.494	% 100,0

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

65 urtetik beherakoen kolektiboa bakarrik kontuan hartuta, aurreikuspen-planetako bazkideek, batez beste, **49 urte** dituzte. Batezbesteko hori bera da bai emakumeentzat, bai gizonentzat. Batez besteko adin hori bat dator BGAEek Bazkideen Fitxategi Orokorrean emandako adin zehatzaren informazioa ustiatzetik lortutako datuekin.

35 urtetik beherakoak kolektiboaren % 10 dira. Era berean, kolektibo horren % 28k 46 urte baino gutxiago dituzte. 46 eta 60 urte bitartekoaren tartean, kolektiboaren % 44 biltzen da, eta 60 urtetik gorakoenean, berriz, % 27. Adin-tarteen araberrako portzentajeazko banaketa hori errepikatu egiten da emakumeen eta gizonen kasuan.

1.3.2. Enpleguko aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako bazkideen adina

6. koadroa

Bazkideak	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa	%/guztizkoa
0-20 urte	2.292	1.249	3.541	% 0,6
21-25 urte	10.255	7.245	17.500	% 3,1
26-30 urte	16.107	14.961	31.068	% 5,4
31-35 urte	21.163	20.598	41.761	% 7,3
36-40 urte	33.729	27.007	60.736	% 10,6
41-45 urte	40.416	32.193	72.609	% 12,7
46-50 urte	51.472	39.127	90.599	% 15,9
51-55 urte	46.868	34.965	81.833	% 14,3
56-60 urte	39.581	31.959	71.540	% 12,5
61-65 urte	28.846	26.015	54.861	% 9,6
65 urtetik gora	26.955	17.963	44.918	% 7,9
Guztizkoa	317.684	253.282	570.966	% 100,0

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Aurreko puntuan bezala, 65 urtetik beherakoen kolektiboa bakarrik hartzen bada kontuan, enpleguko aurreikuspen-planetako (lehentasunezkoak eta ez-lehentasunezkoak) bazkideen batez besteko adina **46 urtekoa** da; hau da, bazkide

guztien batezbestekoa baino hiru urte gazteagoa. Batezbesteko hori antzekoa da bai emakumeentzat, bai gizonentzat.

35 urtetik beherakoak kolektiboaren % 16 dira. Ildo horretan, BGAEek Bazkideen Fitxategi Orokorrean emandako datuen arabera, enplegu-modalitateko BGAEetan modan dagoen balioa 47 urtekoa da, emakumeen artean nahiz gizonen artean.

Bazkideen % 40k 46 urte baino gutxiago dituzte. 46 eta 60 urte bitartekoaren artean, kolektiboaren % 43 biltzen dira; 60 urtetik gorakoaren artean, gainerako % 17a.

Azken ekitaldi honetan, enpleguko BGAEek Bazkideen Fitxategian eman duten informazioaren arabera, 27.825 pertsona sartu dira BGAE horietan.

1.3.3. Banakako aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako bazkideen adina

7. koadroa

Bazkideak	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa	%/guztizkoa
0-20 urte	586	537	1.123	% 0,2
21-25 urte	2.369	1.876	4.245	% 0,6
26-30 urte	6.431	6.050	12.481	% 1,7
31-35 urte	12.128	11.075	23.203	% 3,1
36-40 urte	20.408	17.901	38.309	% 5,2
41-45 urte	35.240	31.240	66.480	% 9,0
46-50 urte	55.453	48.084	103.537	% 14,0
51-55 urte	62.289	52.041	114.330	% 15,5
56-60 urte	64.129	55.255	119.384	% 16,1
61-65 urte	55.296	50.672	105.968	% 14,3
65 urtetik gora	82.300	67.863	150.163	% 20,3
Guztizkoa	396.629	342.594	739.223	% 100,0

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Berriz ere, azterketan 65 urtetik beherakoaren kolektiboa bakarrik hartzen badugu kontuan, banakako aurreikuspen-planetako bazkide direnen batez besteko adina **51 urtekoa** da; hau da, bazkide guztien batezbestekoa baino bi urte gehiago, eta enplegu-planetara bildutako pertsonen batez besteko adina baino bost urte gehiago. Batezbesteko hori antzekoa da bai emakumeentzat, bai gizonentzat. 35 urtetik beherako pertsonak kolektiboaren % 6 dira; hau da, enplegu-modalitateko BGAEetan gertatzen dena baino 10 puntu portzentual gutxiago.

Kolektibo horren % 20k 46 urte baino gutxiago dituzte. 46 eta 60 urte bitarteko tartean, kolektiboaren % 46 biltzen dira; 60 urtetik gorakoaren kasuan, berriz, % 34.

Horri dagokionez, banakako BGAEek Bazkideen Fitxategiari jakinarazi diotenez, 21.807 pertsona berri sartu dira BGAE horietan.

Aurreko datuen arabera, enpleguko lehentasunezko eta ez-lehentasunezko BGAEetan bazkideak gazteago sartzen dira banakako modalitateko BGAEen kasuan baino; horrek aukera emango du ekarpenen eta kapitalizazioaren karrera luzeagoa egiteko, pentsio osagarri nahikoak lortzeko.

1.4. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenak eta prestazioak

8. koadroa

Modalitatea	Erakunde kopurua	Ekarpenak		Prestazioak	
		Zenbatekoa (€)	%/guztizkoa	Zenbatekoa (€)	%/guztizkoa
Elkartua	2	251.182,61	% 0,03	932.768,70	% 0,13
Enplegukoa	38	189.004.482,78	% 21,47	153.747.676,26	% 20,93
Banakakoa	25	414.678.227,17	% 47,11	236.050.187,19	% 32,13
Enplegukoa lehentasunezkoa	3	276.315.547,64	% 31,39	343.987.287,16	% 46,82
Guztizkoa	68	880.249.440,20	% 100,00	734.717.919,31	% 100,00

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Aurreko koadroan, kontingentzia jakin batzuetarako egindako ekarpenei eta prestazioei buruzko datuak jasotzen dira: erretiroa, heriotza, mendekotasuna, ezintasun iraunkorra, iraupen luzeko langabezia eta gaixotasun larria, hain zuzen; hau da, BGAEek aurreikuspen-planen bidez emaniko prestazioak.

Beraz, datu horietan ez dira ageri beste gizarte-prestazio batzuk jasotzeko (hala nola aldi baterako ezintasuna, enplegurako laguntzak, zenbait prestazio mediko, etab.) egiten diren ekarpenak eta prestazioak. Enpleguko BGAE batzuek ematen dituzte horrelako prestazioak, baina ez dira bigarren edo hirugarren zutabekoak.

Bestalde, erreskateak ere ez daude taulan jasota; izan ere, kontzeptualki, hamar urtetik gorako antzinatasuna duten ekarpenei dagozkien eskubide ekonomikoak aurretiaz xedatzea ez da prestazio bat.

1.4.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenak

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenen zenbatekoa 880.249.440,20 €-koa izan zen; beraz, % 4,3ko hazkunde txiki bat gertatu zen iragan ekitaldiko zenbatekoarekiko.

Ekarpenen portaera, generoaren ikuspegitik, aurreko ekitaldiaren oso antzeko terminoetan mantendu da; izan ere, sistemari egindako ekarpenen % 57 (498.320.980,97 €) gizonen egin dituzte, eta emakumeek, berriz, ekarpenen % 43 (381.928.459,23 €). Horrek esan nahi du emakumeen ekarpenak, oro har, bazkide-kopuruaren banaketa portzentuala baino 2 puntu portzentual txikiagoak direla.

Bestalde, 2024ko abenduaren 31n aurreikuspen-planetan **bazkide aktiboek** egindako ekarpenen batez besteko zenbatekoa **1.539 €**-koa izan zen (1.664 € gizonen kasuan, eta zertxobait txikiagoa, 1.401 €, emakumeen kasuan). Gizonen batez besteko ekarpena emakumeena baino % 19 handiagoa da.

Enplegu-planen multzoan, **jarduneko bazkideen** ekarpenen batez besteko zenbatekoa – enpresen kontribuzioak barne– **1.583 €**-koa izan zen. Enpresa-kontribuzioak enpleguko BGAEetan egindako ekarpen eta kontribuzioen baturaren zenbateko osoaren % 74 dira.

Kasu honetan, gizonen batez besteko ekarpena (1.801 €) % 34 handiagoa da emakumeen batezbestekoa baino (1.349 €). Enplegu-aurreikuspeneko planen multzoari egindako ekarpenen batez besteko zenbateko horrek txikiagoa izaten jarraitzen du Euskadiko gizarte-aurreikuspen osagarriaren planean helburu gisa finkatutako zenbatekoak

(1.800 €) baino. Horri dagokionez, nabarmendu behar da bazkideen % 27k soilik egiten dutela 1.800 €-tik gorako ekarpena enpleguko BGAEen multzoan.

Bestalde, banakako modalitateko planetan, ekarpenen batez besteko zenbatekoa **1.492 €**-koa zen (1.523 € gizonen kasuan, eta emakumeen kasuan % 4 txikiagoa, 1.458 €).

Horrez gain, adierazten da BGAEen Estatistika eta Kontabilitate Dokumentazioa izapidetzeko egin den aplikazio informatikoak BGAE bati egindako ekarpen eta kontribuzio guztiak BGAE horren egoitza soziala kontuan hartuta egozten dituela. Horrenbestez, estatistika-ondorioetarako, aplikazio horrek ez du bazkideen egoitza kontuan hartzen ekarpenak eta kontribuzioak lurraldeka sailkatzean.

Arazo hori konpontzen saiatzeko, BGAEek AA87-Bazkideen Fitxategi Orokorra aplikazioan sartutako ekarpen eta kontribuzioei buruzko datuak erabili dira, aplikazio horretan badago-eta BGAE batean sartutako pertsona bakoitzaren helbideari buruzko datua.

Aurrekoa kontuan hartuta, EAEn 2024an egindako ekarpen eta kontribuzioen zenbateko osotik % 14,3 Arabako Lurralde Historikoan egin ziren, % 42,2 Bizkaian eta % 43,5 Gipuzkoan. Lurralde-banaketarako, ezabatu egin dira bizilekua EAetik kanpo duten pertsonen dagozkien ekarpenak; hau da, aplikazio horretan zehaztutako ekarpen eta kontribuzio guztien % 4 inguru.

1.4.2. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako bazkideen ekarpenen maila eta gastu fiskala

1.4.2.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako bazkideen ekarpenen maila

9. koadroa

Ekarpenak	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa	%/gutzizkoa
300 eurora arte	53.883	49.748	103.631	% 18,2
301-900 €	81.253	93.467	174.720	% 30,6
901-1.800 €	69.248	63.240	132.488	% 23,2
1.801-3.000 €	48.875	34.060	82.935	% 14,5
3.001-4.500 €	17.952	13.766	31.718	% 5,6
4.501-6.000 €	22.368	15.694	38.062	% 6,7
6.001-7.200 €	3.397	1.713	5.110	% 0,9
7.201-8.000 €	1.056	362	1.418	% 0,2
8.001-24.250 €	417	214	631	% 0,1
.250 € baino gehiago	25	18	43	% 0,0
Gutzizkoa	298.474	272.282	570.756	% 100,0

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

2006an onartutako Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Planaren arabera, urteko soldata gordinaren % 6ko urteko ekarpenak egin behar dira 37 urtez, erretiroa hartu aurreko soldataren % 20ren baliokidea den pentsioa lortzeko.

BGAEek informatutako datuen arabera, Kontabilitateko Dokumentazio Estatistikoaren (KDE) ekarpen-maila bideratutako atal espezifikoan, gutxi gorabehera bi bazkideetatik

batek (% 49) 900 €-tik beherako ekarpenak egin zituen (% 45 gizonen kasuan eta % 53 emakumeen kasuan). 1.800 €-tik gorako ekarpenak bazkideen % 28k egin zituzten.

Enplegu-planen eremuan, bazkideen % 27k 1.800 €-tik gorako ekarpena egiten dute. 1.800 €-ko erreferentziako ekarpen hori 30.000 €-ko urteko soldata gordinaren % 6 da.

Banakako planetan, bestalde, bazkideen % 29k 1.800 €-tik gorako ekarpenak egiten dituzte urtean; ehuneko hori % 17ra jaisten da, aintzat hartuz gero urtean 3.000 € baino gehiagoko ekarpenak egiten dituzten bazkideak.

1.4.2.2. Ekarpunen gastu fiskala

Eusko Jaurlaritzako Zerga Administrazioako Zuzendaritzak 2022. urteari buruz emandako azken datu fiskalen arabera, aurreikuspen-planari egindako ekarpenak aplikatutako aitorpenen ia erdiak (% 46) 30.000 €-tik beherako oinarri likidagarriak zeuzkaten zergadunenak izan ziren. Kolektibo horren gastu fiskal zenbatetsia BGAeri egindako ekarpenengatiko gastu fiskal osoaren % 29 izan zen.

42.000 €-tik beherako oinarri likidagarriak dituzten zergadunak kontuan hartuz gero, zergadunen ehunekoa % 73ra iritsi zen, eta gastu fiskalaren % 56 sortu zuten. Bestalde, aitortzaileen % 12k -56.400 €-tik gorako oinarri likidagarria dutenek- gastu fiskalaren % 25 eragin zuten BGAeri egindako ekarpenengatik.

Horrez gain, PFEZaren zerga-oinarriaren batez besteko murrizketa 2.043 €-koa izan zen 2022an, baina batez besteko murrizketa hori bikoiztu egin da (4.073 €) 56.400 €-tik gorako oinarri likidagarria duten aitortzaileen kasuan. Batez besteko murrizketa hori 1.295 €-koa da 30.000 €-tik beherako oinarri likidagarria duten aitortzaileen kasuan. Batez besteko azken ekarpen hori 30.000 €-ko batez besteko soldataren % 4,32 da.

Cuadro nº 10

PFEZ. EUSKAL AE / 2022 / IRPF. C.A. EUSKADI													
ZERGA-OINARRI OROKORRAREN MURRIZKETAK / REDUCCIONES DE LA BASE IMPONIBLE GENERAL													
000 €													
ERRENTA-MAILAK (Likidazio-Oinarria) NIVELES DE RENTA (Base Liquidable) (€)	Zerga-Oinarri Orokorra Base Imponible General	MURRIZKETAK / REDUCCIONES								Aurreko urteetako likidazio- oinarri negatiboak Bases liquidables negativas de años anteriores		Likidazio-Oinarri Orokorra Base Liquidable General	
		BGAE-tarako ekarpenak Aportaciones EPSV		Baterako zerga- ordainketagatiko murrizketa Reduc. Tribut. Conjunta		Konpentsazioak o pentsioak Pensiones compensatorias							
		Zenbatekoa Importe	Kop. Nº	Zenbat. Importe	Kop. Nº	Zenbat. Importe	Kop. Nº	Zenbat. Importe	Kop. Nº	Zenbat. Importe	Kop. Nº	Zenbat. Importe	Kop. Nº
0 - 2.400	49.427	3.325	2.651	5.637	17.245	35	390	88	320	25.417	30.026		
2.400 - 3.600	42.382	1.494	1.198	1.361	5.884	8	46	28	106	12.250	35.231		
3.600 - 4.800	65.482	1.788	1.492	1.900	8.360	3	9	22	71	13.713	55.620		
4.800 - 6.000	120.391	2.341	2.018	2.171	9.400	8	58	24	50	20.605	108.904		
6.000 - 8.400	399.578	6.854	6.199	7.364	32.518	39	201	54	129	51.304	360.724		
8.400 - 10.800	488.477	8.290	7.736	9.474	41.819	54	324	35	149	46.768	438.538		
10.800 - 13.200	892.766	12.214	12.445	12.768	56.440	86	505	41	92	70.401	823.380		
13.200 - 15.600	1.202.076	15.646	16.563	14.404	63.847	121	652	23	87	79.762	1.120.962		
15.600 - 18.000	1.496.124	18.760	20.889	14.679	65.029	115	667	38	195	85.925	1.409.392		
18.000 - 20.400	1.659.883	21.432	25.583	14.315	63.450	145	992	30	103	83.992	1.569.776		
20.400 - 22.800	1.740.482	23.367	30.835	13.593	60.372	160	1.076	21	79	78.287	1.648.165		
22.800 - 25.200	1.734.007	23.176	33.220	12.640	56.205	193	1.425	26	100	70.463	1.643.084		
25.200 - 27.600	1.740.720	23.360	37.840	11.649	51.840	159	1.078	15	81	64.349	1.649.907		
27.600 - 30.000	1.739.752	22.851	40.828	11.076	49.316	165	1.043	18	95	58.978	1.648.488		
30.000 - 32.400	1.785.770	23.081	43.520	10.539	46.936	135	874	14	42	55.938	1.694.417		
32.400 - 34.800	2.048.270	23.042	44.895	14.876	66.736	128	653	19	66	59.479	1.935.957		
34.800 - 37.200	2.234.658	22.565	46.055	6.761	29.847	73	404	9	4	61.104	2.158.384		
37.200 - 39.600	1.748.822	21.665	46.880	5.850	25.890	66	359	4	2	45.255	1.675.715		
39.600 - 42.000	1.379.381	18.834	42.275	4.400	19.392	73	421	3	20	33.727	1.317.307		
42.000 - 44.400	1.159.796	15.923	37.971	3.616	15.982	49	333	5	20	26.931	1.105.530		
44.400 - 46.800	942.279	12.779	31.764	2.822	12.470	34	203	8	-6	20.851	897.859		
46.800 - 49.200	795.761	10.412	27.601	2.396	10.576	46	306	6	11	16.847	757.308		
49.200 - 51.600	647.999	8.135	22.768	1.960	8.661	30	245	5	12	13.156	616.331		
51.600 - 54.000	560.390	6.748	19.781	1.645	7.265	24	144	2	3	10.912	533.206		
54.000 - 56.400	479.323	5.571	17.185	1.415	6.217	21	121	2	6	8.997	455.801		
56.400 - 58.800	424.827	4.757	15.388	1.188	5.247	25	169	1	0	7.656	404.034		
58.800 - 61.200	380.422	4.160	13.935	1.027	4.531	22	173	1	0	6.575	361.812		
61.200 - 63.600	350.751	3.746	13.161	899	3.950	22	173	0	0	5.846	333.584		
63.600 - 66.000	307.435	3.160	11.470	790	3.499	12	122	2	11	4.953	292.339		
66.000 - 72.000	679.088	6.720	25.108	1.605	7.098	23	195	3	5	10.329	646.669		
72.000 - 78.000	582.900	5.561	21.736	1.332	5.889	20	125	2	-68	8.236	555.230		
78.000 - 84.000	463.939	4.116	16.784	976	4.328	23	189	3	1	6.141	442.701		
84.000 - 90.000	378.401	3.162	13.452	752	3.319	21	222	1	1	4.709	361.416		
90.000 - 120.000	1.070.929	7.779	35.350	2.014	8.934	44	386	2	2	11.880	1.026.250		
120.000 - 150.000	490.377	2.857	14.541	904	4.040	28	306	5	61	4.545	471.426		
150.000 - 180.000	281.443	1.375	6.996	438	1.961	17	256	3	67	2.254	272.168		
> 180.000	1.222.424	3.104	17.741	1.188	5.315	63	1.305	1	5	5.305	1.197.908		
GUZTIRA / TOTAL	33.786.932	404.150	825.854	202.424	889.809	2.290	16.150	564	1.920	1.193.840	32.055.550		

Fuente: Dirección de Administración Tributaria

Aurrekoarekin lotuta, EAEko 2022ko Aurrekontu Orokorretan **248.336 mila euroko gastu fiskala kalkulatu zen gizarte-aurreikuspenari egindako ekarpenengatik**. Horrek esan nahi du **% 30**ekoa izango litzatekeela BGAEei egindako ekarpenen eta kontribuzioen murrizketari aplikatu beharreko batez besteko tasa.

Aurreikuspen-planak dituzten BGAE guztietatik eratorritako **balantza fiskala** lortzeko – hau da, prestazioetatik eta erreskateetatik eratorritako diru-sarrera fiskalen eta aurreikuspen-planak dituzten BGAEei egindako ekarpen eta kontribuzioen kostu fiskalen arteko aldea kalkulatzeko–, diru-sarrera fiskalak zenbatetsi beharko lirateke.

Horri dagokionez, kontuan izan behar da borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen onuradunek eta bazkide osoek jasotako prestazioak –eskubide ekonomikoak

aurretiaz xedatzearen ondorioz jasotzen direnak barne (erreskateak)- zergapetu egin behar direla, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ) arautzen duten arauetan ezarritako moduan, eta % 100ean integratuko direla.

Dena den, aurreko paragrafoan aurreikusitakoa, eta **betiere zenbatekoa kapital gisa jasotzen bada, kontingentzia bakoitzeko** (erretiroa, baliaezintasuna, kausatzaile bakoitzaren heriotza, mendekotasun larria, gaixotasun larria eta iraupen luzeko langabezia) **jasotzen den lehenengo prestazioa 100eko 60an integratuko da, baldin eta lehenengo ekarpena egin zenetik bi urte baino gehiago igaro badira. Era berean, % 60ko integrazio-ehunekoa aplikatuko zaio erreskateengatik jasotako lehenengo zenbatekoari.**

2022an, aurreikuspen-planak dituzten BGAEek kontingentzia gisa abonatutako zenbatekoa 667.447 mila eurokoa izan zen. Zenbateko horretatik, 361.338 mila euro errenta gisa jaso ziren, eta gainerako 306.109 mila euroak kapital gisa jaso zirela jotzen da. Era berean, erreskate gisa ordaindutako zenbatekoa 117.263 mila eurokoa izan zen, eta kapital gisa jaso zen.

Diru-sarrera fiskala kalkulatzeko, **% 60ko integrazio-ehunekoa** aplikatuko zaie (254.023 mila euro) prestazio eta erreskate kontzeptupean **kapital** gisa jasotako zenbateko guztiei (423.372 mila euro), eta errenta gisa jasotako zenbatekoak % 100ean integratuko dira (361.338 mila euro). Horrenbestez, 615.362 mila euro integratuko lirateke, eta horrek, % 28ko tributazio-tasa marjinalarekin, **172.301 mila euroko sarrera fiskala** eragingo luke.

Azken zenbateko horrek esan nahi du balantze fiskal negatiboa dagoela, zeren 2022an **BGAEetan egindako prestazioen eta erreskateen tributazioak gastu fiskalaren % 69** soilik estaliko baitzuen, **gizarte-aurreikuspenera egindako ekarpenengatik.**

Beste ekitaldi teoriko batean, kontuan hartuz % 100aren ordezkari kapital gisa jasotako zenbatekoaren % 75 bakarrik aplika daitekeela % 40ko murrizketan PFEZaren zerga-oinarrian integratzearen ondoretarako, diru-sarrera fiskal zenbatetsia 184.155 mila eurora igoko litzateke; hau da, gizarte-aurreikuspeneko ekarpenengatik gastu fiskalaren ia **% 74** finantzatuta egongo litzateke BGAEetan egindako prestazioen eta erreskateen tributazioarekin.

Aurreko zenbatespenak berretsiz gero, BGAEetan 2022an egindako prestazioen eta erreskateen tributazioak gizarte-aurreikuspenari egindako ekarpenengatik gastu fiskalaren ia lau euroatik hiru finantzatu beharko zukeen.

1.4.3. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako bazkideen kontingentziengatikoko prestazioak

1.4.3.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE GUZTIEN bazkideen kontingentziengatikoko prestazioak

11. koadroa

Kontingentzia	Bazkide pasibo edo onuradun kopurua			Zenbatekoa (€)		
	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa
Erretiroa	29.150	15.610	44.760	383.719.280,36	167.162.244,44	550.881.524,80
Ezintasun Iraunkorra	5.262	1.875	7.137	35.694.634,13	12.724.085,69	48.418.719,82
Mendekotasuna	37	30	67	453.727,53	516.062,04	969.789,57
Iraupen Luzeko Langabezia	230	185	415	1.437.236,65	734.225,39	2.171.462,04
Gaixotasun larria	8	4	12	45.553,75	34.259,81	79.813,56
Heriotza	7.225	19.357	26.582	32.864.158,35	99.332.451,17	132.196.609,52
Guztizkoa	41.912	37.061	78.973	454.214.590,77	280.503.328,54	734.717.919,31

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

2024an aurreikuspen-planak dituzten BGAEek prestazioetan egindako ordainketaren % 75 erretiro-kontingentziari egokitu zitzaion, eta ordaindutakoaren % 18 erakundearen sartutako pertsona baten heriotzaren ondoriozko onuradunek jaso zuten. Bi kontingentzia horiek BGAEen prestazioetako guztizko gastuaren % 93 hartzen dute.

Hala ere, ez da gutxietsi behar BGAEek herritarren egoera ekonomiko txarrei aurre egiteko betetzen duten zeregina; izan ere, beste gertakizun batzuetatik eratorritako prestazioak ematen dituzte, hala nola langabezia, ezintasun iraunkorra, mendekotasuna edo gaixotasun larria.

Prestazio kopuruari dagokionez, emakumeek % 47 jaso zuten, eta gizonak % 53. Bestalde, prestazioen zenbateko guztizkoaren % 62 (454.214.590,77 €) gizonak jaso dute; emakumeek, berriz, prestazioen zenbatekoaren % 38 (280.503.328,54 €). Jasotako prestazioen aurreikuspen-plan bakoitzaren batez besteko zenbatekoa **9.303 €**-koa izan da. Nolanahi ere, analisia sexuaren arabera egiten bada, gizonak jasotako batez besteko zenbatekoa (10.837 €) % 43 handiagoa da emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoa (7.569 €) baino.

1.4.3.2. Enpleguko BGAEetako bazkideen kontingentziengatikoko prestazioak

12. koadroa

Kontingentzia	Bazkide pasibo edo onuradun kopurua			Zenbatekoa (€)		
	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa
Erretiroa	19.679	8.902	28.581	271.627.164,97	106.621.393,16	378.248.558,13
Ezintasun Iraunkorra	4.269	1.487	5.756	27.154.590,38	9.221.623,08	36.376.213,46
Mendekotasuna	0	1	1	0,00	5.425,31	5.425,31
Iraupen Luzeko Langabezia	57	47	104	363.672,24	206.054,98	569.727,22
Gaixotasun larria	1	0	1	1.538,60	0,00	1.538,60
Heriotza	1.112	7.915	9.027	9.614.564,72	72.918.935,98	82.533.500,70
Guztizkoa	25.118	18.352	43.470	308.761.530,91	188.973.432,51	497.734.963,42

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Enplegu-modalitateko BGAEen aurreikuspen-planek prestazioetan egindako gastu osotik % 76 erretiro-kontingentziari egokitu zitzaion, eta % 17 erakundean sartutako pertsona baten heriotzaren ondoriozko onuradunek jaso zuten. Ikusten denez, aurreikuspen-planen multzoaren portaera bertsua du. Enpleguko BGAEen aurreikuspen-planen kasuan, bi kontingentzia horiek BGAEen prestazioetako gastu osoaren % 93 xurgatzen dute.

Prestazio kopuruari dagokionez, emakumeek prestazioen % 42 jaso dituzte, eta gizonek % 58. Bestetik, prestazioen guztizko zenbatekoaren % 62 (308.761.530,91 €) gizonek jaso dute; emakumeek, berriz, guztizko zenbatekoaren % 38 (188.973.432,51 €).

Era berean, enpleguko aurreikuspen-planetan jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa **11.450 €**-koa izan zen; hau da, aurreikuspen-planen multzorako lortzen den zenbatekoa baino handiagoa. Azterketa sexuaren arabera eginez gero, emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoa (10.297,16 €) oraindik ere askoz txikiagoa da gizonek jasotakoa baino (12.292,44 €). Enplegu-modalitateko BGAEen aurreikuspen-planetan, puntu bat murriztu da genero-arrakala, aurreko ekitaldiarekiko. Hala ere, gizonen prestazioen batez besteko zenbatekoa % 19 handiagoa da emakumeena baino.

1.4.3.3. Enpleguko BGAE sektorialetako bazkideen kontingentziengatiko prestazioak

13. koadroa

Kontingentzia	Bazkide pasibo edo onuradun kopurua			Zenbatekoa (€)		
	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa
Erretiroa	17.056	8.365	25.421	205.440.161,96	90.511.290,52	295.951.452,48
Ezintasun Iraunkorra	3.997	1.429	5.426	22.595.735,53	7.992.692,74	30.588.428,27
Mendekotasuna	0	0	0	0,00	0,00	0,00
Iraupen Luzeko Langabezia	42	42	84	175.585,86	194.459,28	370.045,14
Gaixotasun larria	1	0	1	1.538,60	0,00	1.538,60
Heriotza	758	5.268	6.026	6.300.800,99	45.281.070,52	51.581.871,51
Guztizkoa	21.854	15.104	36.958	234.513.822,94	143.979.513,06	378.493.336,00

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Lau erakunde hauen azterketa estatistikoaren ondorioetarako: Lagunaro, Geroa, Elkarkidetza eta Itzarri sektorialak dira, beren aurreikuspen-planek enpresa multzo bat hartzen dutelako barruan (BGAE bat Mondragon Korporazioko kide diren kooperatibetarako, beste bat Gipuzkoako hitzarmen kolektibo probintzial jakin batzuen mendeko diren enpresetarako, eta bi BGAE sektore publikoko langileentzat –bat foru- eta toki-administrazio langileentzat, eta bestea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileentzat–).

Aurrekoa kontuan hartuta, enpleguko BGAE sektorialen multzoak (Lagunaro, Geroa, Elkarkidetza eta Itzarri) prestazioetan ordaindutakoaren % 78 erretiro-kontingentziarekin lotuta egon da, eta ordaindutakoaren % 14 erakundean sartutako pertsona baten heriotzaren ondoriozko onuradunek jaso dute.

Kopuruari dagokionez, emakumeek prestazioen % 41 jaso zituzten, eta gizonek % 59. Bestetik, guztizko prestazioen zenbatekoaren % 62 (234.513.822,94 €) gizonek jaso dute; emakumeek, berriz, % 38 (143.979.513,06 €).

Era berean, jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa **10.241 €**-koa izan zen; beraz, enpleguko aurreikuspen-planen multzoaren zenbatekoa baino txikiagoa. Analisia sexuaren arabera egitean, ikusten da 2024an enpleguko BGAE sektorialetan emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoa (9.533 €) % 12 txikiagoa izan zela gizonek jasotakoa (10.731 €) baino.

Enpleguko BGAE sektorialetan dagoen genero-arrakala ehuneko 6 puntu murriztu da, enpleguko BGAEen multzoak izan duen portaerarekiko.

1.4.3.4. Enpleguko BGAE sektorial ez-publikoetako bazkideen kontingentziengatiko prestazioak

14. koadroa

Kontingentzia	Bazkide pasibo edo onuradun kopurua			Zenbatekoa (€)		
	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa
Erretiroa	12.150	4.723	16.873	167.071.143,44	57.132.824,47	224.203.967,91
Ezintasun Iraunkorra	2.761	805	3.566	17.008.363,05	5.071.298,76	22.079.661,81
Mendekotasuna	0	0	0	0,00	0,00	0,00
Iraupen Luzeko Langabezia	6	0	6	18.161,57	0,00	18.161,57
Gaixotasun larria	0	0	0	0,00	0,00	0,00
Heriotza	384	3.698	4.082	4.363.695,39	40.770.721,75	45.134.417,14
Guztizkoa	15.301	9.226	24.527	188.461.363,45	102.974.844,98	291.436.208,43

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Enplegu-modalitateko BGAE sektorial ez-publikoek (Lagunaro eta Geroa) prestazioetan egindako guztizko gastuaren % 77 erretiro-kontingentziarekin lotuta egon zen, eta ordaindutakoaren % 15 erakundean sartutako pertsona baten heriotzaren ondoriozko onuradunek jaso zuten.

Emakumeek prestazio-kopuru osoaren % 38 jaso zuten, eta gizonek % 62. Bestetik, guztizko prestazioen zenbatekoaren % 65 (188.461.363,45 €) gizonek jaso zuten; emakumeek, berriz, % 35 (102.974.844,98 €).

Enpleguko BGAE sektorial ez-publikoen kasuan, jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa **11.882 €**-koa izan zen; hau da, enpleguko BGAE sektorialen multzorako lortzen den zenbatekoa baino handiagoa, zeren, Lagunaroren kasuan, pentsio osagarri nahikoak ordaintzeko definitutako prestazio-sistema bat duen BGAE bat baita.

Azkenik, analisia sexuaren arabera egitean, berriro ere agerian geratzen da dagoen desberdinkeria, gizonek jasotako batez besteko zenbatekoa (12.317 €) % 10 handiagoa baita emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoa (11.161 €) baino.

2024ko ekitaldian, publikoak ez diren enpleguko BGAE sektorialetako genero-arrakala bederatzi puntu portzentual murriztu zen enpleguko BGAEen multzoak izandako portaerarekiko.

1.4.3.5. Enpleguko BGAE sektorial publikoetako bazkideen kontingentziengatikoko prestazioak

15. koadroa

Kontingentzia	Bazkide pasibo edo onuradun kopurua			Zenbatekoa (€)		
	Gizonak	Emakumeak	Gutizkoa	Gizonak	Emakumeak	Gutizkoa
Erretiroa	4.906	3.642	8.548	38.369.018,52	33.378.466,05	71.747.484,57
Ezintasun Iraunkorra	1.236	624	1.860	5.587.372,48	2.921.393,98	8.508.766,46
Mendekotasuna	0	0	0	0,00	0,00	0,00
Iraupen Luzeko Langabezia	36	42	78	157.424,29	194.459,28	351.883,57
Gaixotasun larria	1	0	1	1.538,60	0,00	1.538,60
Heriotza	374	1.570	1.944	1.937.105,60	4.510.348,77	6.447.454,37
Gutizkoa	6.553	5.878	12.431	46.052.459,49	41.004.668,08	87.057.127,57

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Enplegu-modalitateko sektore publikoko BGAEek (Elkarkidetza eta Itzarri) prestazioetan egindako gastu osoaren % 82 erretiro-kontingentziarekin lotuta egon zen, eta % 7 erakundean sartutako pertsona baten heriotzaren ondoriozko onuradunek jaso zuten.

Prestazio kopuruari dagokionez, emakumeek prestazioen % 47 jaso zituzten, eta gizonak % 53. Bestalde, guttizko prestazioen zenbatekoaren % 53 (46.052.459,49 €) gizonak jaso zuten; emakumeek, aldiz, % 47 (41.004.668,08 €). Era berean, jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa **7.003 €**-koa izan zen: zenbateko hori txikiagoa da enpleguko BGAE sektorialen multzorako lortutakoa baino; batik bat, Itzarriren aurreikuspen-sistemaren heltze-maila txikiagoa delako.

Analisia sexuaren arabera egitean, ikusten da emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoa (6.976 €) gizonenaren antzekoa dela (7.028 €). Enpleguko BGAE sektorial publikoen kasuan, genero-arrakala desagertu egin da ia, % 1ekoa izan baita.

1.4.3.6. Banakako BGAEetako bazkideen kontingentziengatikoko prestazioak

16. koadroa

Kontingentzia	Bazkide pasibo edo onuradun kopurua			Zenbatekoa (€)		
	Gizonak	Emakumeak	Gutizkoa	Gizonak	Emakumeak	Gutizkoa
Erretiroa	9.457	6.705	16.162	111.788.558,40	60.537.935,75	172.326.494,15
Ezintasun Iraunkorra	993	388	1.381	8.540.043,75	3.502.462,61	12.042.506,36
Mendekotasuna	37	29	66	453.727,53	510.636,73	964.364,26
Iraupen Luzeko Langabezia	172	138	310	1.072.248,93	528.170,41	1.600.419,34
Gaixotasun larria	7	4	11	44.015,15	34.259,81	78.274,96
Heriotza	6.113	11.419	17.532	23.249.593,63	25.788.534,49	49.038.128,12
Gutizkoa	16.779	18.683	35.462	145.148.187,39	90.901.999,80	236.050.187,19

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Banakako BGAEen kasuan, 2024an prestazioetan egindako guttizko gastuaren % 73 erretiro-kontingentziari egokitu zitzaion, eta % 21 bazkide arrunt baten heriotzaren ondoriozko onuradunek jaso zuten.

Bestetik, prestazioen zenbateko guttizkoaren % 61 (145.148.187,39 €) gizonak jaso dute, eta emakumeek, berriz, % 39 (90.901.999,80 €). Era berean, jasotako prestazioen batez

besteko zenbatekoa **6.656 €**-koa izan zen; zenbateko txikiagoa da hori, enpleguko BGAEena eta planak dituzten BGAEen multzoarena baino.

Azterketa sexuaren arabera eginez gero, ikusten da emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoa (4.865 €) berriz ere askoz txikiagoa dela gizonen jasotakoa (8.650 €) baino.

Banakako modalitateko BGAEetan, genero-arrakala handitu egin da aurreko urtearekin alderatuta, eta laukoiztu egiten du enpleguko BGAEetan dagoena; izan ere, banakako modalitatean, gizonen prestazioen batez besteko zenbatekoa % 78 handiagoa da emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoa baino.

Generoaren ikuspuntutik, beraz, argi dago enpleguko BGAEen aldeko apustua egiteak gaur egun dagoen genero-arrakala murrizten lagunduko duela.

1.4.4. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen prestazioak kobratzeko modua

17. koadroa

Planak dituzten BGAEak kobratzeko modua	Bazkide pasiboen kopurua	Zenbatekoa (€)	Urteko batez besteko zenbatekoa (€)	Hileko batez besteko zenbatekoa (€)
Errenta aktuariala	32.597	304.498.945	9.341	778
Finantza-errenta	15.886	83.678.235	5.267	439
Kapitala	16.622	320.637.436	19.290	-
Guztizkoa	65.105	708.814.615	-	-

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Atal honetan, prestazioak nola kobratu diren aztertuko dugu, oso alderdi kualitatibo garrantzitsua baita. Horri dagokionez, aurreikuspen-planak dituzten BGAEen multzoak ordaindutako prestazioen zenbateko osoaren % 41 (734.717.919,31 €) errenta aktuarial gisa kobratu da (304.498.945 €), eta % 11 finantza-errenta gisa (83.678.235 €); horrek esan nahi du **prestazioen zenbatekoaren % 52 errenta gisa jasotzen dela**, eta % 44 kapital gisa (320.637.436 €). Hiru modu horietan kobratu da kobrantza osoaren % 96. Gainerako % 4a (25.903.304 €) lehen aipatutakoez bestelako kobrantza-moduei dagokie, hala nola kobratzeko modu mistoari.

Kapital gisa kobratzeko moduak 2023ko ekitaldian izandako portaeraren antzekoa izan du. Horrek esan nahi du BGAEen eremuan jasotako zenbatekoaren ia erdia kapital gisa egiten dela (% 44), erakunde horien xedea Gizarte Segurantzak abonatzeko dituen aldizkako pentsioak behar beste zenbatekoz osatzea denean. Portaera horrek desbideratu egiten du BGAEek duten lehentasunezko helburua; hau da, prestazioak errenta gisa kobratzea.

Gaur egun kapital gisa jasotako prestazioei ematen zaien zerga-tratamendua errenta gisako tratamendua baino onuragarriagoa da, eta baliteke horrek eragitea prestazio osagarriak jasotzen dituzten pertsonen jarduteko modu hori.

1.4.5. Enpleguko BGAEen prestazioak kobratzeko modua

18. koadroa

Enpleguko BGAEak kobratzeko modua	Bazkide pasiboen kopurua	Zenbatekoa (€)	Urteko batez besteko zenbatekoa (€)	Hileko batez besteko zenbatekoa (€)
Errenta aktuariala	29.269	299.918.445	10.247	854
Finantza-errenta	6.417	43.429.859	6.768	564
Kapitala	6.548	135.500.737	20.693	-
Guztizkoa	42.234	478.849.041	-	-

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Enpleguko BGAEen multzoan, prestazioen % 96 (478.849.041 €) errenta aktuarial, finantza-errenta eta kapital gisa kobratu ziren, prestazioen kobrantza osotik (497.734.963,42 €). Aurreko datuetan sakonduz, ondorioztatzen da enpleguko BGAEen prestazioen guztizko zenbatekoaren % 60 egin direla errenta aktuarial gisa (299.918.445 €), eta % 9 finantza-errenta gisa (43.429.859 €). Hortaz, **prestazioen guztizkoaren % 69 errenta gisa kobratu dira**, eta % 27, berriz, kapital gisa (135.500.737 €). Gainerako % 4a aurrekoen bestelako kobrantza-modu batzuei dagokie, hala nola kobrantza-modu mistoari (18.885.922 €).

Enpleguko BGAEen kasuan, argi dago kobratzeko modu nagusia errenta aktuariala dela (kasuen erdiak baino gehiago). Kontuan hartzen badugu, halaber, finantza-errenta gisa kobratutakoa, prestazioen zenbateko osoaren bi heren errenta moduan jasotzen dira, eta hori bat dator BGAE-en helburu sozialarekin.

1.4.6. Banakako BGAEen prestazioak kobratzeko modua

19. koadroa

Banakako BGAEak kobratzeko modua	Bazkide pasiboen kopurua	Zenbatekoa (€)	Urteko batez besteko zenbatekoa (€)	Hileko batez besteko zenbatekoa (€)
Errenta aktuariala	3.328	4.580.499	1.376	115
Finantza-errenta	9.461	40.191.660	4.248	354
Kapitala	10.051	184.260.646	18.333	-
Guztizkoa	22.840	229.032.805	-	-

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Hori **banakako BGAEekin** egiten badugu prestazioen zenbateko osoaren gainean, ondorioztatzen da **% 78 kapital gisa kobratzen dela**, % 17 finantza-errenta gisa eta % 2 errenta aktuarial gisa. Laburbilduz, banakako BGAEek ordaindutako prestazioen guztizko zenbatekoaren % 19 bakarrik jaso da errenta gisa. Hiru kobrantza-modu horiek prestazioen kobrantza osoaren % 97 adierazten dute. Gainerako % 3a beste modu batzuetan kobratu da; modu mistoan, esaterako.

Enpleguko BGAEetan ez bezala, banakako BGAEetan gaur egun nagusi den kobratzeko modua ez dator bat zati handiena errenta moduan kobratzeko helburuarekin.

Hala ere, azpimarratu behar da azken ekitaldietan banakako BGAEetako bazkideak prestazioa errenta aktuarial gisa kobratzea eskatzen hasi direla pixkanaka. Hain zuzen ere, errenta aktuarial gisa jasotako batez besteko hileko zenbatekoa ezkontidea kargura egonda Gizarte Segurantzak 2024an ematen zuen erretiro-pentsioaren hileko gutxieneko zenbatekoaren % 10 baino gehixeago da.

1.5. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako erreskateak

20. koadroa

Erreskateak	BGAE elkartuak		Enpleguko BGAEak		Banakako BGAEak		BGAEak, guztira
Kopurua	3	% 0,02	104	0,73%	14.065	% 99,24	14.172
Zenbatekoa (€)	55.707,11	% 0,04	2.163.431,67	1,65%	128.508.836,19	% 98,30	130.727.974,97

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

BGAEEi aplikatzekoa den araudiak aukera ematen die banakako edo baterako modalitateko BGAEko bazkideei hamar urtetik gorako antzinatasuna duten eskubide ekonomikoak aurretiaz xedatzeko. Enpleguko BGAEek, berriz, ez dute aukerarik ematen hamar urteko antzinatasuna izateagatik erreskatea jasotzeko, salbuespen iragankor batekin: aurreikuspen-plan batzuetan bakarrik daukate eskubide ekonomikoak aurretiaz jasotzeko aukera hori, baldin eta otsailaren 23ko 5/2012 Legea (BGAEena) indarrean jarri zenean erreskaterako aukera jada jasota bazuten aurreikuspen-planetan.

Genero-ikuspegitik, pentsioekin gertatzen denaren antzeko zerbait gertatzen da erreskateekin; hau da, 2024an, gizonek egin dituzte erreskateen % 55, baina jasotako zenbatekoa % 59 da.

1.6. Enpleguko BGAEek ematen duten babes-mailari buruzko ikuspegi orokorra

Ondoren, ariketa teoriko bat egingo dugu, aurreko ataletan lortutako datuak integratuz, BGAEek ematen duten babesaren nahikotasun-mailari buruzko ikuspegi orokorra izateko.

Kalkulu aktuariala enpleguko planen kasurako egingo dugu, modalitate horretan ia ez dagoelako bikoiztasunik, nekez gertatuko delako sistematik borondatez ateratzea eskubide ekonomikoak erreskatatuz, eta kobratzeko modu nagusia aldizkako errentak direlako.

Hipotesi hauek hartuko ditugu kontuan: enpleguko gizarte-aurreikuspeneko planei egindako urteko batez besteko ekarpena (1.583 €) urtean % 1,5 areagotuko da, ekarpen definituko enplegu-planetako *per capita* eskubide ekonomikoa (16.393 €), 65 urtetik beherako bazkideen batez besteko adina (46 urte), enpleguko planen modako inbertsio-orientazioa (errenta finko mistoa), eta erretiro-datara arte urtean % 2,5eko batez besteko errentagarritasuna lortzeko aukera; PERM-2020 taula aktuarialak. Hipotesi horiekin, 67 urterekin lortuko litzatekeen biziarteko hileko pentsio konstante eta itzulezina 300 € gordin ingurukoa litzateke (250 € 2024ko balioetan, % 1eko inflazio-hipotesizat joz); hau da, EAEko Gizarte Segurantzaren sistemako batez besteko erretiro-pentsioaren % 15aren baliokidea 2024ko abenduan (1.771,55 €).

Beste ikuspegi batetik behatuta, pentsio osagarri horren zenbatekoa izango litzateke EAerako batez besteko soldata gordin gisa hartu den 30.000 €-ko urteko soldata gordinaren % 10aren baliokidea. Estaldura-maila horrek ez luke beteko Euskadiko gizarte-aurreikuspen osagarriko planean ezarritako helburua; hots, azken soldataren % 20osatzea.

Ildo horretan, gogorarazi nahi da aurreikuspen-planak dituzten BGAEen prestazioak zergapean daudela, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) arauetan ezarritako moduan, eta, halaber, zerga horren konturako atxikipenen sistema orokorraren mende.

1.7. Laburpena, generoaren ikuspegitik

Txostenaren atal honetan, aurreko puntuetan deskribatutako zenbait desberdinkeria jasotzen dira, laburbilduta. Horrez gain, koadro batzuk jasoko dira, non agertuko den, alde batetik, bazkideek BGAEetako gobernu-organismoetan duen partaidetza, sexuaren arabera banatuta; eta, bestetik, BGAEetako enplegatuen sexuaren arabera banaketa.

Emakumeak bazkide kopuru osoaren % 45 dira, eta ekitaldiko ekarpenen % 43 egin dituzte. Horrek esan nahi du ekitaldi honetan ere emakumeen ekarpenak, osotasunean hartuta, ehuneko bi puntu txikiagoak direla bazkide kopuruari dagokion banaketa portzენტuala baino.

65 urtetik beherakoek kolektiboa bakarrik hartzen bada kontuan, aurreikuspen-planetako bazkideen batez besteko adina 49 urtekoa da. Batezbesteko hori berdina da emakumeentzat nahiz gizonentzat.

Bazkideen ia erdiek (% 49) 900 €-tik beherako ekarpenak egin zituzten: gizonen kasuan % 45ek, eta emakumeen kasuan % 53k.

2024ko abenduaren 31n aktibo zeuden aurreikuspen-planei atxikitako pertsonen egindako ekarpenen batez besteko zenbatekoa 1.539 €-koa izan zen (1.664 € gizonen kasuan, eta 1.401 € emakumeen kasuan). Gizonen batez besteko ekarpena emakumeena baino % 19 handiagoa da.

Prestazioei dagokienez, prestazio guztien % 62 (454.214.590,77 €) gizonek jaso dituzte; aitzitik, emakumeek ekarpenen % 38 lortu dituzte (280.503.328,54 €), nahiz eta emakumeak BGAEetan sartutako pertsonen % 45 izan.

Aurreikuspen-plan bakoitzeko jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa 9.303 €-koa izan da. Hala ere, analisia sexuaren arabera egiten bada, ikusten da gizonek jasotako batez besteko zenbatekoa (10.837 €) % 43 handiagoa dela emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoa (7.569 €) baino.

BGAEak modalitatearen arabera aztertuz gero, ondorioztatzen da emakumeek enpleguko BGAEen aurreikuspen-planetan jasotako batez besteko zenbatekoa (10.297 €) oraindik ere txikiagoa dela gizonena (12.292 €) baino. Modalitate horretako BGAEen aurreikuspen-planetan, genero-arrakala puntu portzენტual bakar bat murriztu da

aurreko ekitaldiarekiko. Horrek esan nahi du gizonen prestazioen batez besteko zenbatekoa emakumeenak baino % 19 handiagoa izaten jarraitzen duela.

Era berean, jasotako prestazioen aurreikuspen-plan bakoitzeko batez besteko zenbatekoa kontuan hartuta, publikoak ez diren enpleguko BGAE sektorialetako genero-arrakala bederatzi puntu portzentual murriztu da enpleguko BGAEen multzoak izandako portaerarekiko, eta % 10ekoa izan da. Bestalde, sektore publikoko enpleguko BGAEetan ia desagertu egin da genero-arrakala, % 1ean baitago. Banakako BGAEen kasuan, genero-arrakala hori areagotu egiten da, % 78ra iritsita.

Prestazioak kobratzeko moduei dagokienez, emakumeek gizonak baino zenbateko txikiagoak kobratzen dituzte. Gizonak finantza-errenta, errenta aktuarial eta kapital gisa kobratutako prestazioen batez besteko zenbatekoa hurrenez hurren % 11, % 25 eta % 30 handiagoa da emakumeek jasotzen dutena baino.

Genero-ikuspegitik, pentsioekin gertatzen denaren antzeko zerbait gertatzen da erreskateekin; hau da, 2024an, gizonak egin dituzte erreskateen % 55, baina jasotako zenbatekoa % 59 da.

Laburbilduz, BGAEen esparruan nabarmentzen den genero-arrakala gizonak eta emakumeak enplegu berdinak eta antzeko soldatak eskuratzeko orduan daukaten desberdinkeria ondo da. Horri dagokionez, Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzak (EIOPA) soldata-berdintasunaren aldeko neurriak hartu behar direla defendatzen du, etorkizunean ez dadin pentsioetan desorekarik egon.

Bestalde, hurrengo koadroan, aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako gobernu-batzarretan karguak betetzen dituzten pertsonen kopurua jasotzen da, sexuaren arabera banakatuta.

21. koadroa

BGAEen gobernu-batzarreko karguak	Gizonak		Emakumeak	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Presidenteak	69	% 74,2	24	% 25,8
Presidenteordeak	40	% 63,5	23	% 36,5
Idazkariak	59	% 61,5	37	% 38,5
Kideak	278	% 64,1	156	% 35,9
Beste batzuk	43	% 64,2	24	% 35,8
Guztizkoa	489	% 64,9	264	% 35,1

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Aurreko koadroan agerian uzten da aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako gobernu-batzarreko kargudunen % 65 gizonak direla. Emakumeek kasuen % 26an betetzen dute presidente-kargua.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera, honako hau dio 203/2015 Dekretuaren 8. artikulua (203/2015 Dekretua, urriaren 27koa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen otsailaren 23ko 5/2012 Legearen Erregelamendua onesten duena): BGAEek ahaleginak egingo dituzte emakumeen eta gizonen ordezkartza

orekatua egon dadin gobernu-organoetan eta, hala badagokio, jarraipen-batzordean, erakundeko gizonen eta emakumeen ehunekoari dagokion proportzioaren arabera.

Horri dagokionez, emakumezkoen eta gizonezkoen ordezkaritza orekatua dagoela jotzen da sexu biek gutxienez % 40ko ordezkaritza dutenean. Era berean, Gobernu Batzordea hiruzpalau kidek osatzen dutenean, ulertuko da ordezkaritza orekatua dagoela bi sexuak daudenean ordezkaturata.

BGAEn esparruan, BGAEei aplikatu beharreko araudian jasotakoaren arabera gobernu-batzordeetan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izateko irizpideak ez lirateke beteko aurreikuspen-planak dituzten erakundeen % 40an.

Azkenik, 22. koadroan aurreikuspen-planak dituzten BGAEen arabera enplegatutako pertsonen kopurua dago jasota, sexuaren arabera banakatuta.

22. koadroa

Langile kopurua	
Gizonak	25
Emakumeak	50
Guztira	75

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

EAEko gizarte-aurreikuspen osagarria kudeatzeko aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako enplegatuen % 67 emakumeak dira.

2. AURREIKUSPEN-PLANAK DITUZTEN BGAE-EN ORAINTSUKO BILAKAERA

2.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen kopuruaren bilakaera

23. koadroa

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEak	2021	2022	± Δ %	2023	± Δ %	2024	± Δ %
Elkartua	2	2	% 0,00	2	0,00%	2	% 0,00
Enplegukoa	42	40	-% 4,76	40	0,00%	41	% 2,50
Banakakoa	27	26	-% 3,70	26	0,00%	25	-% 3,85
Guztizkoa	71	68	-% 4,23	68	0,00%	68	% 0,00

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Gaur egun, enpleguko lehentasunezko hiru BGAE daude. Hala ere, serieak homogeneoak izan daitezen, erakunde horiek enpleguko BGAEen kategoria orokorrean sartu dira, estatistika-ondorioetarako.

2024an, aurreikuspen-planak dituzten BGAEen kopuruan ez da aldaketarik izan, zeren banakako modalitateko BGAE baten baja konpentsatu egin baita enpleguko BGAE baten altarekin (Etorkizuna, enpleguko BGAE). Horrek kontrastea sortzen du 2017-2022 aldian

erakundeen kopuruan izandako pixkanakako beherakadarekin. Banakako modalitateko BGAEen kasuan, finantza-alorrean gertatu den fusio-prozesuak antzeko fusio-prozesua eragin du erakunde horietako bazkide sustatzaileek bultzatutako BGAEetan. Enpleguko BGAEen kopuruan murrizketa izan da BGAE batzuen bazkide babesleek hartutako erabakiengatik, beren aurreikuspen-planak eta langileak aurretik zegoen beste BGAE batean sartzea aukeratu dutelako, eskalako ekonomiez baliatzen saiatzeko.

2.2. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen balantze-zifraren bilakaera

24. koadroa

Balantze Zifra (€)	2021	2022	± Δ %	2023	± Δ %	2024	± Δ %
	29.081.772.456,18	26.887.502.285,44	-% 7,55	28.894.371.064,06	% 7,46	30.826.556.772,59	% 6,69

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

2024an, aurreikuspen-planak dituzten BGAEen balantze-zifrak ia 2.000 milioi euroko hazkundera izan zuen; zehazki, % 7 inguruko gehikuntza izan zuen aurreko ekitaldiko zifrarekiko.

Ekarpen gisa jasotakoaren eta BGAEek beren aurreikuspen-planen bidez prestazio eta erreskateengatik ordaindutakoaren arteko aldeak 15 milioi euroko saldo positiboa izan zuen.

Horregatik, aurreikuspen-planek izandako urteko errentagarritasun positiboak azaltzen du gorakada hori, finantza-merkatuen portaera onuragarriak eraginda, nahiz eta egungo egoera geopolitikoak zalantzak pizten dituen gerta litezkeen atzeraldi ekonomikoei buruz.

2.3. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako bazkide-kopuruaren bilakaera

25. koadroa

Bazkideak	2021	2022	± Δ %	2023	± Δ %	2024	± Δ %
Gizonak	629.336	631.165	% 0,29	642.086	1,73%	642.792	% 0,11
Emakumeak	514.412	519.110	% 0,91	533.833	2,84%	536.099	% 0,42
Guztizkoa	1.143.748	1.150.275	% 0,57	1.175.919	2,23%	1.178.891	% 0,25

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

2024an, pixka bat handitu egin zen bazkide-kopurua. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da koadro honetako datuak aurreikuspen-planak dituzten BGAE guztietako bazkideei buruzkoak direla, kontuan hartu gabe pertsona bat BGAE bakar batean edota gehiagotan dagoen. Ildo horretatik, ñabardura hauek egitea komeni da.

Bazkide-kopurua aurreikuspen-planetan sartuta dagoen pertsona-kopurua da; hau da, pertsona batek zenbat plan dituen sinatuta, horrenbeste aldiz zenbatzen da pertsona hori ondorio horietarako. 2024ko abenduaren 31n, **1.311.494** ziren orotara (5. koadroko datua). Hala ere, kopuru horretan bikoiztasunak egon daitezke, pertsona batek berak hainbat aurreikuspen-plan izan baititzake sinatuta.

Bestalde, BGAE bakoitzaren esparruan, pertsona bakoitza behin bakarrik zenbatzen da bazkide gisa, nahiz eta erakunde berean aurreikuspen-plan bat baino gehiago izan harpidetuta. Irizpide

horri jarraikiz, **bazkideak 1.178.891** dira; hori da, ondorio estatistikoetarako, BGAEetan dauden bazkideen guztizko kopurua (4. koadroko datua). Kopuru horretan ere bikoiztasunak egon daitezke, pertsona bera bazkidea izan baitaiteke BGAE batean baino gehiagotan; halakoetan, bazkidea den erakundearen kopurua adina aldiz zenbatzen da zifra horretan.

Azkenik, BGAEek Bazkideen Fitxategi Orokorrari emandako datuek aukera ematen dute aurreko zenbatekoetan dauden bikoiztasun guztiak ezabatzeko. Horrela, aurreikuspen-planak dituzten BGAEetan 2024ko abenduaren 31n babestutako **bazkideak 863.146** ziren (EAEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren % 45, Eustatek argitaratua).

Bazkide-kopuruaren gaineko zifra aurreko urteko zifrarekin alderatuz gero, ondorioztatzen da 2024an bazkideak 7.234 gehiago direla BGAEen multzoan.

2.4. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenen eta prestazioen bilakaera

26. koadroa

Zenbatekoa (€)	2021	2022	± Δ %	2023	± Δ %	2024	± Δ %
Ekarpenak	842.254.879,46	834.646.550,15	- % 0,90	843.950.183,41	% 1,11	880.249.440,20	% 4,30
Prestazioak	627.923.322,98	667.447.716,98	% 6,29	691.776.711,08	% 3,65	734.717.919,31	% 6,21
Aldea	214.331.556,48	167.198.833,17	- % 21,99	152.173.472,33	- % 8,99	145.531.520,89	- % 4,36

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Koadro honetan ez dira erreskateak jasotzen; izan ere, eskubide ekonomikoak aurretiaz xedatzea, BGAEei aplikatzekoa den araudian aurreikusitako kontingentziarik gertatu gabe, ez da prestazio gisa zenbatzen. Enpleguko BGAE jakin batzuen kuotak eta gizarte-prestazioak ere ez dira sartu, ez dietelako bigarren edo hirugarren zutabeen kontzeptuei erantzuten, arestian adierazi dugunez.

Hortaz, Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen prestazioen osagarri direnak emateko xedea duten gizarte-aurreikuspeneko planen ekarpenak eta prestazioak bakarrik hartu ditugu kontuan.

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenengatiko diru-sarrerak % 4,30 igo ziren 2024ko ekitaldian, aurreko ekitaldikoekin alderatuta.

Dena den, aldagai horren portaera ez da homogeneoa aurreikuspen-planak dituzten BGAEen modalitateetan, hurrengo koadroan ikus daitekeen bezala.

2.4.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenen bilakaera

27. koadroa

Ekarpenak (€)	2021	2022	± Δ %	2023	± Δ %	2024	± Δ %
Enplegukoa	399.840.299,03	418.266.185,66	% 4,61	439.093.579,77	% 4,98	465.320.030,42	% 5,97
Banakakoa	442.181.745,12	416.132.029,45	- % 5,89	404.633.980,48	- % 2,76	414.678.227,17	% 2,48
Elkartuak	232.835,31	248.335,04	% 6,66	222.623,16	- % 10,35	251.182,61	% 12,83
Guztizkoa	842.254.879,46	834.646.550,15	- % 0,90	843.950.183,41	% 1,11	880.249.440,20	% 4,30

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Azterketak enpleguko eta banakako erakundeetan jarriko du arreta.

Ekarpenen zenbatekoak 2024ko ekitaldian izandako hazkunde globalak bi azalpen ditu: enplegu-modalitateko BGAEei egindako ekarpenek izandako gehikuntza (% 6) eta banakako BGAEen hazkunde txikiagoa (% 2,48). Banakako modalitateko BGAEei egindako ekarpenak berreskuratu egin ziren 2024an, aurreko bi ekitaldietan izandako murrizketak itzuliz.

2024an enplegu eta banakako modalitateek BGAEei egindako ekarpenen zenbatekoa errekor historiko batera iritsi zen, 880 milioi eurokoa izan baitzen.

2.4.2. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen prestazioen bilakaera

28. koadroa

Prestazioak (€)	2021	2022	± Δ %	2023	± Δ %	2024	± Δ %
Enplegukoa	446.294.908,08	464.798.078,34	% 4,15	481.146.282,30	% 3,52	497.734.963,42	% 3,45
Banakakoa	181.353.076,16	202.185.344,32	% 11,49	210.201.572,11	% 3,96	236.050.187,19	% 12,30
Elkartuak	275.338,74	464.294,32	% 68,63	428.856,67	-% 7,63	932.768,70	% 117,50
Guztizkoa	627.923.322,98	667.447.716,98	% 6,29	691.776.711,08	% 3,65	734.717.919,31	% 6,21

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen multzoak 2024an ordaindutako prestazioen zenbatekoa % 6 handitu zen; hala, azken lau ekitaldietan, 700 milioi euro ingurukoa izan da haien batez besteko zenbatekoa.

Nabarmenezkoa da banakako modalitateko BGAEek ordaindutako prestazioen zenbatekoan izandako gehikuntza, 2024an aurreko urtean baino % 12 handiagoa izan baitzen.

2.5. BGAEen erreskateen zenbatekoaren bilakaera

29. koadroa

Erreskateak (€)	2021	2022	± Δ %	2023	± Δ %	2024	± Δ %
	114.838.801,81	117.263.225,55	% 2,11	123.772.814,22	% 5,55	130.727.974,97	% 5,62

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

[1.5 atalean \(Aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako erreskateak\)](#) jasotako 20. koadroan ikusten denez, ia erreskate guztiak (% 99) banakako aurreikuspen-planetan egiten dira.

Prestazioen bat eman aurretik eskubide ekonomikoak guztiz edo partzialki erreskatatzeagatik gizarte-aurreikuspeneko sistema osagarritik kendutako zenbateko osoa 130.727.974,97 €-koa izan zen 2024an; hau da, aurreko ekitaldian baino % 5 gehiago.

Banakako BGAEen kasuan, erreskateen zenbatekoa urteko ordainketa guztien oso zati handia da. 2024an banakako BGAEek erreskate bidez aurretiaz itzultako dirua honelakoa izan zen, gutxi gorabehera: ondarearen % 1, ekitaldian egindako ekarpenen % 31, eta modalitate horretako aurreikuspen-planetan estalitako kontingentziak gertatzeagatik prestazioetan ordaindutakoaren % 54. Beste ikuspegi batetik ikusita, erreskateetan abonaturatutako zenbatekoa prestazio eta erreskateengatik funts-irteera guztien % 35 da. Erreskateak (guztizkoak eta partzialak BGAEen multzoan) 14.172 izan ziren orotara 2024an, eta horien batez besteko zenbatekoa, urte horretan bertan, 9.224 €-koa izan zen.

Horri dagokionez, esan daiteke BGAEek estaltzen dituzten kontingentzietan erori gabe beren eskubide ekonomikoak aurretiaz xedatzen dituzten pertsonen kopurua adierazle ona dela ondorioztatzeko sistemak zein mailatan ez duen betetzen bere aurreikuspen-helburua eta nola erabiltzen den beste helburu batzuetarako –adibidez, arrazoi finantzario-fiskalekin–.

Erabilera horretan eragina izan dezake, neurri batean, kapital gisa jasotako sarrerei aldizkako errenta gisa jasotakoen aldean ematen zaien tributu-tratamendu onuragarriak; nolanahi ere, 2025eko lehenengo seihilekoan, foru-arau batzuk onetsi dira, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako tributu-sistemaren erreforma eta beste tributu-aldaketa batzuk onesteko, prestazioak errenta gisa kobratzea tributu-arloan laguntzeko. Hala ere, erreskateen bilakaerari dagokionez, agerian geratu da, oro har, erreskateen zenbatekoa nabarmen murriztu dela 2013az geroztik, eta 2024an erreskatatutakoa 2013an erreskatatutakoaren erdia baino gutxiago dela.

2.6. BGAEen ekarpenen, prestazioen eta erreskateen bilakaera

30. koadroa

Zenbatekoa (€)	2021	2022	± Δ %	2023	± Δ %	2024	± Δ %
Ekarpenak (1)	842.254.879,46	834.646.550,15	-% 0,90	843.950.183,41	% 1,11	880.249.440,20	% 4,30
Prestazioak (2)	627.923.322,98	667.447.716,98	% 6,29	691.776.711,08	% 3,65	734.717.919,31	% 6,21
Erreskateak (3)	114.838.801,81	117.263.225,55	% 2,11	123.772.814,22	% 5,55	130.727.974,97	% 5,62
Aldea (1)-(2)-(3)	99.492.754,67	49.935.607,62	-% 49,81	28.400.658,11	-% 43,13	14.803.545,92	-% 47,88

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Azkenik, ekarpenak, prestazioak eta erreskateak batera aztertuz gero, adierazi behar da ekarpenen bidez bildutakoaren eta ordaindutako prestazioen eta aurreikuspen-planetan egindako erreskateen baturaren arteko aldeak saldo positiboa duela, bosgarren urtez jarraian.

2024ko 15 milioi euroko saldo positiboa % 48 murriztu zen aurreko urteko saldoarekiko, ekarpenen zenbatekoaren gehikuntzak ez baititu konpentsatzen urte horretan izandako prestazioen eta erreskateen zenbatekoen gehikuntzak.

3. AURREIKUSPEN-PLANAK DITUZTEN BGAE-EN DIMENTSIOA

3.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen dimentsio ekonomikoa

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEek kudeatzen duten ondarea oso garrantzitsua da. Termino makroekonomikoetan adierazita, EAEko 2024ko BPGaren % 31,68aren baliokidea da (97.293 milioi euro prezio korrontetean, Eustatek 2025eko martxoan argitaratutako datuaren arabera). Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ondareak EAEko BPGarekiko duen pisua aurreko urtekoaren antzeko ehunekoan mantendu da.

Era berean, 2024ko ekitaldiari dagokion ratio horrek adierazten du BGAEek Euskal Autonomia Erkidegoan duten ezarpena eta pisua nabarmen handiagoa dela –ia laukoitza– Espainia osoko pentsio-funtsekin alderatuta, non ondarea BPGaren % 8,3 zen, Inverco

erakundearen datuen arabera. Era berean, 2023ko datuen arabera, EB-12ko* batezbestekoa (% 20,2) baino handiagoa da, eta urte horretako bertako ELGAko batezbestekoa (% 58,1) baino txikiagoa.

BGAEEK kudeatutako aktiboen bolumena hain handia izateak zeregin garrantzitsua ematen die finantzen ikuspegitik, tresna lagungarriak izan daitezkeelako euskal industria bultzatzeko eta azpiegitura energetiko eta zientifiko teknologikoetan inbertsio handiak egiteko, bai eta enpresak hazteko eta errotzeko eragiketa industrial eta teknologikoak sustatzeko ere.

BGAEEen garrantzia murriztu egiten da aintzat hartzen denean ez haien finantza-dimentsioa, baizik eta gizarte-babeseko sisteman duten dimentsio erlatiboa. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEEi egindako urteko ekarpenak BPGaren % 1 inguru dira. Ehuneko hori Finlandian eta Italian egiten diren ekarpenen ehunekoen antzekoa da, eta gainditu egiten ditu Austrian, Alemanian, Luxenburgon edo Espainian egindakoak, non % 0,3aren ingurukoak diren. Dena den, aurreikuspen-sistema osagarrietarako urteko ekarpen gordinak BPGaren % 8,3ra iristen dira Suitzan, % 7,1era Australian, % 4,2ra Herbehereetan eta % 2,5era Erresuma Batuan, 2022ko datuen arabera.

EAERI dagozkion 2024ko Gizarte Segurantzaren datuen arabera, aurreikuspen-planak dituzten BGAEEen ekarpenengatiko diru-sarrerera korronteak eta prestazio sozialetako gastua, hurrenez hurren, gizarte-kotizazioengatik sartutakoaren % 13koa zen, eta urte horretan Gizarte Segurantzako sistema publikoak ordaindutakoaren % 7 EAEn.

31. koadroa

Planak dituzten BGAEEak	Mila eurotan	BPGd-aren %	Gizarte Segurantzaren (%)
Ekarpenak	880.249	% 1	% 13
Prestazioak	734.718	% 1	% 7
Ondarea	30.827	% 31,68	-

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

BGAEEK gizarte-babesaren diru-sarreretan eta gastuetan duten eginkizunean dagoen alde handi horren interpretazioak askotariko azalpenak ditu. Horien artean, azpimarratzekoa da sistema pribatua askoz gazteagoa dela sistema publikoa baino –edo ez hain heldua–, lehenengoa ez dagoela orokortuta eta bigarrenaren unibertsaltasun ia erabatekoa dela, eta ekarpen-mailak nahiko baxuak direla Gizarte Segurantzako sistema publikora egindako kotizazio sozialekin alderatuta.

* EB-12: Herbehereak, Finlandia, Danimarka, Irlanda, Portugal, Espainia, Italia, Alemania, Belgika, Austria, Suedia eta Frantzia. Grezia eta Luxenburgo ez dira sartzen.

3.2. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen tamaina, haien ondarearen arabera

32. koadroa

Ondarea MM (€)	Enpleguko BGAEak			Banakako BGAEak	BGAE elkartuak	Guztizkoa
	Sektorialak	Enpresa	Guztizkoa			
<10		10	10	2	1	13
10-150		22	22	13	1	36
150-300		3	3	4		7
>300	4	2	6	6		12
Guztizkoa	4	37	41	25	2	68

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

BGAEen tamainari dagokionez, haien ondarea aintzat hartuz gero, aurreikuspen-planak dituzten BGAEen % 85ek ondare txikiagoa dute batezbestekoa baino (453 milioi euro). Ondorioz, erakunde gutxi batzuek baino ez dute tamaina handia, eta horrek nolabaiteko minifundismoa (hau da, erakunde txiki asko) dakar; hau da, tamaina txikiko erakunde asko eta tamaina handiko BGAEen kopuru txikia (% 15).

Eta hori berdin gertatzen da bai enpleguko BGAEetan eta bai banakakoetan. Beste ikuspegi batetik behatuta, BGAEen % 13k -25.000 bazkide baino gehiago dauzkatenek- aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ondare osoaren % 81 daukate.

3.3. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen tamaina, bazkide-kopuruaren arabera

33. koadroa

Bazkide kopurua	Enpleguko BGAEak			Banakako BGAEak	BGAE elkartuak	Guztizkoa
	Sektorialak	Enpresa	Guztizkoa			
< 250		9	9	2	1	12
250-1000		18	18	4		22
1001-5000		7	7	8	1	16
5001-25000		3	3	6		9
> 25.000	4		4	5		9
Guztizkoa	4	37	41	25	2	68

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

2024an, aurreikuspen-planak zituen BGAE bakoitzak 17.337 bazkide zeuzkan batez beste. Banakako BGAEek 23.484 bazkide zeuzkaten batez beste; enplegukoek, berriz, 13.907 bazkide. Enpleguko BGAEetako bazkide-kopurua banakako BGAEetako bazkideen batezbestekoaren ia erdia da.

Baina nahiko handiak diren neurri horiek «minifundismo» handia ezkutatzaren dute BGAEen kolektiboan, batez ere Enpleguko BGAEen artean. Enpleguko BGAE gehienek (% 66) 1.000 bazkide baino gutxiago dituzte, eta zazpi erakunde bakarrik dituzte 5.000 bazkide baino gehiago, aurreko koadroan adierazten den bezala.

Banakako BGAEen artean, tamaina-diferentzia hori ez da hain nabarmena, banakako BGAEen % 24k bakarrik baitituzte 1.000 bazkide baino gutxiago. Bestalde, bostetik batek 25.000 bazkide baino gehiago ditu.

3.4. Enplegu-planen modalitateak, ekarpenen eta prestazioen araubidearen eta enpresa anitzeko planen arabera

Ekarpenen eta prestazioen araubidearen arabera, aurreikuspen-planak honela sailkatzen dira oro har: ekarpen definituko gizarte-aurreikuspeneko planak eta prestazio definituko gizarte-aurreikuspeneko planak.

Ekarpen definituko gizarte-aurreikuspeneko planak: aurretiaz zehazturik daukate bazkideen ekarpenak zenbatekoa izan behar duen, bai eta zenbateko hori nola finkatu behar duten ere; ez du zerikusi zuzenik eta berehalakorik etorkizunean jaso litekeen prestazio zehatzarekin, eta, *a priori*, ezin da prestazioaren zenbatekoa bermatu.

Prestazio definituko gizarte-aurreikuspeneko planetan zehaztu egiten da bazkide pasiboek edo onuradunek jaso beharreko prestazioen zenbatekoa edo horiek finkatzeko modua.

Enplegu-planen eremuan, 153 plan zeuden 2024an. Horietatik 110 plan ekarpen definitukoak dira eta 43 prestazio definitukoak; horrek esan nahi du enplegu-aurreikuspeneko hiru planetatik ia bi ekarpen definitukoak direla.

Enpleguko aurreikuspen-plan guztietatik 86 enpresa bakar batek sustatu ditu; 67, berriz, enpresa batek baino gehiagok.

Enpresa batek baino gehiagok sustatutako enpresa anitzeko enpleguko aurreikuspen-planetan **13.262 enpresa** daude sartuta (erakunde publikoak barne). BGAEek Euskadiko BGAEen Erregistroari jakinarazi diote erakunde horietan sartutako enpresa bakoitzaren jarduera ekonomikoak (EJSN) sailkatzeko zenbakizko kodea. Enpresa horiek 220 jarduera ekonomikotan daude multzokatuta.

Illo horretan, jakinarazitako jarduera nagusia Burdinazko, altzairuzko eta ferroaleaziozko oinarritzko ekoizkinak eta metalezko produktuak egitea da, jarduera horrek biltzen baititu BGAEetan sartuta dauden enpresen % 22. Horren atzetik, Handizkako eta txikizkako merkataritzako jarduerak eta merkataritzako bitartekariak ditugu (enpresen % 18), eta jarduera juridiko, kontabilitate eta administratiboak (enpresen % 11). Bestalde, Beira eta zeramikazko produktuak fabrikatzeko jarduerak, Garraioak eta Administrazio publikoak enpresen % 9, % 6 eta % 4 hartzen dute, hurrenez hurren. Sei jarduera horiek BGAEen sartutako enpresa guztien % 69 hartzen dute.

Enpresen Direktorio Zentralaren datuen arabera, EAEn gutxienez soldatapeko pertsona bat duten enpresa aktiboak 66.723 ziren 2024an. Horrek esan nahi du bost enpresetatik batek gutxi gorabehera bere langileen aldeko aurreikuspen-planak sustatzen dituela.

3.5 Enpleguko aurreikuspen-sistemak, biztanleria okupatuari dagokionez

34. koadroa

LH	Biztanleria okupatua - 2024	Enpleguko BGAEa duten langileak - 2024	BGAEa duten langileen %-a lurralde historikoko biztanleria okupatuaren guztizkoaren aldean eta EAE osoaren aldean
ARABA	152.100	29.112	% 19
BIZKAIA	508.800	78.388	% 15
GIPUZKOA	334.300	143.811	% 43
EAE	995.200	251.311	% 25

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Aurreko koadroko biztanleria okupatuari buruzko datua Eustatetik eskuratu da; enpleguko BGAE duten langileen datua, berriz, BGAEek Bazkideen Fitxategi Orokorrean informatutako **jarduneko bazkideei** dagokiena da.

Biztanleria zahartzeak eragindako desoreka demografikoari aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzak gizarte-aurreikuspen osagarriko plan bat onetsi zuen, eta horren bidez berretsi egin zuen Gizarte Segurantzako lehenengo zutabe sendo bat edukitzeko eta EAEn eskumen eskusibokoak diren tresnak (borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak) garatzeko ideia.

Pentsioen sistema publikoak gaur egun ematen duen babes-maila eta aurreikuspenen arabera izango duen bilakaera kontuan hartuta, ikusten da marjina badagoela gizarte-aurreikuspen osagarria orokortzeko, pentsio publikoak osatzeko helburu bakarrarekin.

Plan horretan adierazi zenez, orokortze-helburua beteta egongo litzateke biztanleria okupatuaren % 70 sartuko balitz enpleguko lehentasunezko aurreikuspen-planetan.

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen dimentsio ekonomikoari buruzko 3.1 atalean, garbi ikusi da oso garrantzitsua dela BGAE horiek kudeatzen duten ondarea. Hala ere, datu makroekonomiko horrek ez du ezkutatu behar EAE oraindik ere oso urruti dagoela enpleguaren gizarte-aurreikuspen osagarria orokortzeko helburutik; izan ere, gaur egun, biztanleria okupatuaren % 25ek bakarrik dituzte enplegu-aurreikuspenenako sistema osagarriak, eta lurralde historikoen arabera duten banaketa ez da uniformea.

Alde horretatik, Eusko Jaurlaritza pozten da hiru lurralde historikoetako foru-aldundiek duela gutxi erreforma fiskala onetsi dutelako, batez ere enpleguko lehentasunezko sistema osagarriari tratamendu fiskal onuragarria emateari dagokionez, orokortzen laguntzeko eta erronka demografikoari traumarik gabe aurre egin ahal izateko.

Era berean, kontuan hartu behar da Estatuak enpleguko pentsio-planak sustatzeko erregulazioaren legea onetsi zuela 2022ko uztailaren 1ean (12/2022 Legea, ekainaren 30ekoa).

Lege horrek zabaltu egin nahi du erretirorako zehaztutako ekarpenen enplegu-sistemaren aurreikuspen-sistemek estalitako biztanleria, enpresaren eta langileen arteko finantzaketa mistoarekin, negozioazio kolektibo sektorialaren bidez. Zabalpen

horretarako, hainbat mekanismo eta pizgarri ezarri behar dira, langile guztientzako enplegu-aurreikuspeneko sistema horien unibertsaltasuna lortze aldera.

Estatuko lege honek berresten du komenigarria eta beharrezkoa dela enpleguko lehenetsuneko sistema osagarrietarako mekanismo eta pizgarriak ezartzea.

Bestalde, banakako BGAEen kasuan –aurreikuspenaren hirugarren zutabea dira–, erlazionatuz gero 2024an alta emandako pertsona-kopurua eta EAEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleak, zenbatesten da, gutxi gorabehera, EAEko 16 urteko eta gehiagoko hiru biztanletatik bat banakako BGAE batean sartuta dagoela.

Banakako sistema horretan, hau da EAEko egoiliarren portzentajezko banaketa, lurralde historikoaren arabera: % 14 Araban, % 52 Bizkaian eta % 34 Gipuzkoan.

4. BGAE-EN KUDEAKETA EKONOMIKOA

4.1. Banakako modalitateko aurreikuspen-planen errentagarritasuna

2024an banakako modalitateko aurreikuspen-planen multzoak lortutako batez besteko errentagarritasun haztatua –aurreikuspen-planen ondareagatik– positiboa izan zen; zehazki, % 6,06koa.

Aurreikuspen-planen errentagarritasun haztatua kalkulatzeko, kontuan hartu dira BGAEek Kontabilitateko Dokumentazio Estatistikoan informatutako likidazio-balioak.

Urte naturalaren epealdi osoan indarrean egon diren banakako modalitateko aurreikuspen-planen errentagarritasunak Eusko Jaurlaritzaren webgunean argitaratuta daude. [Hemendik](#) sar daiteke bertara.

35. koadroa

Batez besteko errentagarritasun haztatua, banakako aurreikuspen-planetako inbertsio-orientazioaren arabera

Errenta aldakorra	% 15,12
Beste batzuk	% 8,35
Errenta aldakor mistoa	% 7,32
Errenta finko mistoa	% 4,33
Epe laburrerako errenta finkoa	% 3,05
Epe luzerako errenta finkoa	% 2,89
Errendimendu aldakorreko bermatuak	% 2,85
Errendimendu finkoko bermatuak	% 2,05
Batez besteko errentagarritasun haztatua guztira	% 6,06

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Aurreko koadroan ageri diren datuak urte osoan indarrean egon diren banakako aurreikuspen-planen buruzkoak baino ez dira; horiek zer errentagarritasun lortu duten kalkulatu da.

Kategoria desberdinen arteko banaketa 2024ko abenduaren 31n ezarritako irizpide hauen arabera egin da:

- Epe laburrerako errenta finkoa: Kategoria honetako planaren eskurako zorroan ez dago errenta aldakorreko aktiborik, ezta azpikoa errenta finkokoa ez duen eratorririk ere. Zorroaren batez besteko iraupena **urtebetekoa edo gutxiagokoa** izango da.
- Epe luzerako errenta finkoa: Aurreikuspen-plan hauek sartuko dira kategoria honetan: eskurako zorroan ez dutenak ez errenta aldakorreko aktiborik, ez eta azpikoa errenta finkokoa ez duten eratorriak ere. Zorroaren batez besteko iraupena **urtebetetik** gorakoa izango da.
- Errenta finko mistoa: Kategoria horri atxikitako aurreikuspen-planek beren zorroaren % 30 baino gutxiago inbertituko dute errenta aldakorreko aktiboetan.
- Errenta aldakor mistoa: Kategoria horretan, beren zorroaren % 30etik % 75era bitarte errenta aldakorreko aktiboetan inbertitzen duten planak egongo dira.
- Errenta aldakorra: Kategoria horretan, beren zorroaren % 75 baino gehiago errenta aldakorreko aktiboetan inbertituta duten planak egongo dira atxikita.
- Bermatuak: Aurreikuspen-plan horiek etekin jakin baten kanpoko bermea dute, hirugarren batek emana.

Banakako aurreikuspen-planek batez besteko errentagarritasun haztatu positiboa izan zuten 2024an; zehazki % 7koa. Errenta aldakorreko banakako planek lortu zuten urteko batez besteko errentagarritasun haztatu handiena (% 15,12), eta, ondoren, bestelako plan gisa katalogatutako planak (% 8,35). Bestalde, inbertsio-orientazio nagusiko banakako aurreikuspen-planek, errenta finko mistoko planek, % 4,33ko batez besteko errentagarritasun haztatu positiboa lortu zuten.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da aurreikuspen-plan batean epe luzera eskuratzen den errentagarritasunak garrantzi erabakigarria duela metatutako azken kapitalaren zenbatekoan, eskubide ekonomikoko kontzeptuan. Horregatik, inbertsio-orientazioaren arabera, funtsezkoa da plan mota hautatzerakoan asmatzea, pentsio osagarri egoki bat lortu ahal izateko.

Hautaketa hori, baina, ez da erraza pertsona gehienentzat. Horri dagokionez, bizi-zikloko inbertsio-estrategiak, BGAEek ongi diseinatuak, ezin hobeak dira pentsio osagarri egoki bat lortzeko.

36. koadroa

Errentagarritasuna	Banakako planen kopurua
Negatiboa	4
% 0-5	106
% 5-10	50
> % 10	46

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Koadro honetan, banakako planen kopurua errentagarritasun-tarteen arabera banatzen da, eta bertan egiaztatzen da banakako modalitateko ia aurreikuspen-plan guztiek errentagarritasun positiboa lortu zutela 2024an.

4.2. Enplegu-modalitateko aurreikuspen-planen errentagarritasuna

Enplegu-modalitateko aurreikuspen-planen multzoak 2024an lortutako batez besteko errentagarritasun haztatua –aurreikuspen-planen ondareagatik– % 7,18koa izan zen. Ekarpen definituko enplegu-planek % 6,61eko batez besteko errentagarritasun haztatu positiboa lortu zuten, eta prestazio definituko planek % 7,73koa.

Enplegu-modalitateko aurreikuspen-planen errentagarritasunak Eusko Jaurlaritzaren webgunean argitaratuta daude, eta [hemendik](#) sartu daiteke bertara.

Bestalde, kudeaketa propioa duten lau erakunde sektorialen batez besteko errentagarritasun haztatua –enpleguko BGAEen ondare osoaren % 80 hartzen dute– % 7,79ra iritsi zen. Hala ere, kontuan izan behar da legediak aukera ematen diela enplegu-erakundeei, betiere eskakizun jakin batzuk betez, beren errenta finkoko zorro negoziagarria kostu amortizatuan kontabilizatzeko; horrek eragotzi egiten du errentagarritasunen zuzeneko konparazioa egitea zorro hori merkatu-balioan kontabilizatu behar duten erakunde indibidualekin.

37. koadroa

Batez besteko errentagarritasun haztatua, enpleguko aurreikuspen-planetako inbertsio-orientazioaren arabera	
Errenta aldakor mistoa	% 10,50
Errenta aldakorra	% 10,47
Errenta finko mistoa	% 7,42
Beste batzuk	% 6,63
Epe luzerako errenta finkoa	% 4,60
Epe laburrerako errenta finkoa	% 4,15
Batez besteko errentagarritasun haztatua guztira	% 7,18

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

4.3. Inbertsio-orientazioa, aurreikuspen-planen bazkideen adinaren arabera

Irizpide orokor gisa, inbertsio mota bazkidearen adinaren arabera izango da: bazkidea zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta arriskutsuagoa inbertsioa; bazkidea zenbat eta helduagoa izan, orduan eta seguruagoa inbertsioa. Irizpide horren arabera, erretiroa hartzeko adina hurbildu ahala, gomendatzen da inbertsioak seguruagoak izatea, nahiz eta horren ordaina errentagarritasun handiagoko aukerak galtzea izan, zeren eta arriskuak kapital metatu guztiari eragiten baitio. Gaztetan, aldiz, metatze-urte asko gelditzen dira, eta arriskatzeko kapitala txikiagoa da. Nolanahi ere, inbertitzeko irizpide nagusia errentagarritasun egokiak bilatzea izan behar da.

38. koadroa

Bazkideen adin-tarteak		Inbertsio-orientazioa							
		Kontserbadorea		Arrisku ertaina		Arriskuzkoa		Beste batzuk	Gutzizkoa
		Bermatuak	Epe laburrera ko errenta finkoa	Epe luzerak o errenta finkoa	Errenta finko mistoa	Errenta aldakor mistoa	Errenta aldakorra		
< 36 urte	Kopurua	183	1.147	2.223	103.981	13.426	7.851	6.115	134.926
	%	% 0,1	% 0,9	% 1,6	% 77,1	% 10,0	% 5,8	% 4,5	% 100,0
36-45 urte	Kopurua	1.299	4.345	14.717	169.019	23.159	12.297	13.415	238.251
	%	% 0,5	% 1,8	% 6,2	% 70,9	% 9,7	% 5,2	% 5,6	% 100,0
46-55 urte	Kopurua	5.068	12.004	27.644	253.091	48.687	20.285	24.079	390.858
	%	% 1,3	% 3,1	% 7,1	% 64,8	% 12,5	% 5,2	% 6,2	% 100,0
56-65 urte	Kopurua	8.337	14.164	24.523	222.505	46.453	16.212	19.928	352.122
	%	% 2,4	% 4,0	% 7,0	% 63,2	% 13,2	% 4,6	% 5,7	% 100,0
>65 urte	Kopurua	3.034	12.569	17.680	121.937	24.723	9.051	6.343	195.337
	%	% 1,6	% 6,4	% 9,1	% 62,4	% 12,7	% 4,6	% 3,2	% 100,0
Gutzizkoa	Kopurua	17.921	44.229	86.787	870.533	156.448	65.696	69.880	1.311.494
	%	% 1,4	% 3,4	% 6,6	% 66,4	% 11,9	% 5,0	% 5,3	% 100,0

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Irizpide hori, arau orokor gisa, bete egiten da aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako bazkideen kasuan. Hori ikusten da, hain zuzen, aurreko koadroari erreparatuz gero: bazkidearen adinak gora egin ahala, kontserbadoretzat hartu dugun inbertsioa –epe laburrerako errenta finkoan batik bat– hazi egiten da, oro har. 36 urtetik beherakoek beren funtsen % 1 inbertituta daukate kontserbadore gisa katalogatutako aukeretan; 65 urtetik gorakoek kasuan, aldiz, ehuneko hori % 8raino igotzen da.

Hala ere, ezin da baieztatu gazteen inbertsioek profil egokia dutenik errentagarritasun handiago bat lortzeko asmoz beren gain hartzen duten arriskuari dagokionez, ez baita logikoa, lehen aipatutako irizpideari jarraikiz, 36 urte baino gutxiago dituzten bazkideek beren ondarearen % 1 inbertsio kontserbadoreetan inbertitzea, eta ehuneko hori % 80raino iristea errenta aldakorra % 30eraino iristen ez den tokian inbertitutakoa kontuan hartzen badugu –hau da, arrisku ertaineko inbertsioak–. Alde horretatik, ez da gehiegi bereizten 56-65 urte bitarteko biztanleek duten inbertsio-portaeratik. Azken kolektibo horrek % 76 du inbertituta errenta aldakorra % 30era iristen ez den aktiboetan.

Biztanle gazteen funts-esleipen horrek ez dirudi efizientea, ia ez baitauka desberdintasunik adinekoen inbertsio-orientazioarekiko. Zehazki, 36 urtetik beherako bazkideen % 6k soilik aukeratu dituzte arrisku handieneko aurreikuspen-planak, non errenta aldakorrak aktiboen % 75eko pisu handiagoa duen.

Hala ere, azken ekitaldian, ia % 16ra iritsi da inbertsio arriskutsutzat jotako planen alde egin duten 36 urtetik beherakoek ehunekoa. Inbertsio-erabaki hori ez da oso desberdina 56 eta 65 urte bitarteko pertsonen kolektiboaren portaerarekiko; izan ere, kolektibo horren % 18k arrisku handiko zorrotan inbertitu dute beren aurreikuspen-aurrezkoa. Baliteke inbertsio-erabaki horien ondorioz, azken kapital bat lortzeko behar den errentagarritasun bat sakrifikatzen egotea –kapital hori pentsio nahiko bihurtzeko–.

Nabarmentzekoa da, beste behin, hiru bazkidetik bik, adina edozein izanda ere, errenta finko mistoko planak aukeratzen dituela, eta, horietan, errenta aldakorreko aktiboetan

inbertitutakoa ez da % 30era iristen. Errenta finko mistoko planak aukeratzen dituzten bazkideak % 77 dira 36 urtetik beherakoen kasuan.

Aurreko guztiarekin lotuta, BGAEei aplikatzekoa den araudian jasotako **bizi-zikloaren inbertsio-estrategien** erregulazioak lagundu egin nahi du inbertsioen arloan erabakiak hartzeko prozesu zailean. Estrategia horrek pertsonen adinaren arabera esleitzen du arrisku-maila, eta inbertsioak bizitza-aldi bakoitzean automatikoki doitzea ahalbidetzen du.

Ildo horretan, ekarpen definituko aurreikuspen-planak antolatzen dituzten banakako BGAEek, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, bizi-zikloaren inbertsio-estrategia bat eskaini behar diete erakundeko bazkideei, gutxienez hiru aurreikuspen-plan eta gehienez bost jasoko dituen, arrisku- eta etekin-konbinazio desberdinak izango dituztenak, kontuan izanda bazkideen adina, inbertsio-estrategia eta egoera.

Banakako modalitateko BGAEek, 2024an, hiru planetatik bat dute bizi-zikloaren estrategiari esleituta; zehazki, banakako modalitateko 225 BGAEetatik 83. Bizi-zikloari esleitutako 83 plan horiek ondare osoaren % 58 daukate, eta gizarte-aurreikuspeneko plan indibidualen multzoan sartutako bazkideen % 59 hartzen dute.

Hona hemen bizi-zikloaren strategiara atxikitako planen inbertsio-orientazioaren arabeko banaketa: Errenta aldakor mistoa, 34; Errenta finko mistoa, 21; Errenta aldakorra, 13; Epe luzerako errenta Finkoa, 5; Epe laburrerako errenta finkoa, 4; Beste batzuk, 6 (Guztira, 83). Arrisku handiko inbertsioetat katalogatutako bizi-zikloaren planek plan horien ondare osoaren % 21 hartzen dute, eta bizi-zikloari lotutako errenta finko mistoko planek, berriz, % 70.

Bizi-zikloari lotutako planetan, 2024an egiaztatzen da, oro har, inbertsio-orientazio bakoitzaren batez besteko errentagarritasun haztatua **pixka bat txikiagoa** dela inbertsio-orientazio horrek berak banakako aurreikuspen-planen multzoan lortutakoa baino.

Aurrekoarekin batera, berriro nabarmendu behar da gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari direla inbertsioen jasangarritasunarekin lotutako alderdiak. Horri dagokionez, inbertsio-erabakietan kontuan hartuko dira, besteak beste, gizartearen, ingurumenaren, etikaren edo gobernu korporatiboaren inbertsio-kontsiderazioak, enpresen jarduera, kudeaketa-eredua eta enpresa-jokabide arduratsuaren kodeak errespetatzea.

Alderdi horiek kontuan hartzen dituzten aurreikuspen-planek etekin ekonomiko soilaz gaindiko helburu bat daukate; izan ere, ingurumen- eta gizarte-helburu jakin batzuk lortu nahi dituzte, gizartea berdeagoa eta bidezkoagoa izan dadin eta hobeki gobernatuta egon dadin. Gainera, metatutako funtsak epe luzera inbertitzeko bokazioak –Gizarte Segurantzako sistema publikoaren erretiro-pentsioak osatzeko– gomendatzen du ingurumena edo gizartea hobetzen lagundu dezaketen inbertsioak bilatzea.

4.4. Inbertsio-orientazioa, enpleguko planen bazkideen adinaren arabera

39. koadroa

Bazkideen adin-tarteak		Inbertsio-orientazioa						
		Kontserbadorea	Arrisku ertaina		Arriskuzkoa		Beste batzuk	Guztizkoa
		Epe laburrerako errenta finkoa	Epe luzerako errenta finkoa	Errenta finko mistoa	Errenta aldakor mistoa	Errenta aldakorra		
< 36 urte	Kopurua %	127 % 0,1	112 % 0,1	92.053 98,1%	217 % 0,2	70 0,1%	1.291 % 1,4	93.870 % 100,0
36-45 urte	Kopurua %	231 % 0,2	1.428 % 1,1	127.025 95,3%	348 % 0,3	244 0,2%	4.069 % 3,1	133.345 % 100,0
46-55 urte	Kopurua %	684 % 0,4	2.011 % 1,2	159.907 92,7%	598 % 0,3	395 % 0,2	8.837 % 5,1	172.432 % 100,0
56-65 urte	Kopurua %	826 % 0,7	1.845 % 1,5	112.426 88,9%	418 % 0,3	277 0,2%	10.609 % 8,4	126.401 % 100,0
>65 urte	Kopurua %	1.031 % 2,3	2.790 % 6,2	35.151 % 78,3	85 % 0,2	64 % 0,1	5.797 12,9%	44.918 100,0%
Guztizkoa	Kopurua %	2.899 % 0,5	8.186 % 1,4	526.562 % 92,2	1.666 % 0,3	1.050 % 0,2	30.603 % 5,4	570.966 % 100,0

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Enpleguko aurreikuspen-planetan, errepikatu egin da aurreko urteetako portaera. Horrela, kolektiboaren % 92 errenta finko mistoko inbertsio-orientazioaren barnean dago sartuta, eta arriskutsutzat katalogatutako inbertsioa aukeratzen duen kolektiboaren ehunekoa –hau da, errenta aldakorra eta errenta aldakor mistoa aukeratzen duen kolektiboa– ez da % 1era iristen.

4.5. Inbertsio-orientazioa, banakako planen bazkideen adinaren arabera

40. koadroa

Bazkideen adin-tarteak		Inbertsio-orientazioa							
		Kontserbadorea		Arrisku ertaina		Arriskuzkoa		Beste batzuk	Guztizkoa
		Bermatuak	Epe laburrerako errenta finkoa	Epe luzerako errenta finkoa	Errenta finko mistoa	Errenta aldakor mistoa	Errenta aldakorra		
< 36 urte	Kopurua %	183 % 0,4	1.020 % 2,5	2.110 5,1%	11.928 % 29,1	13.206 32,2%	7.781 % 19,0	4.824 % 11,8	41.052 % 100,0
36-45 urte	Kopurua %	1.299 % 1,2	4.114 % 3,9	13.289 12,7%	41.962 % 40,0	22.726 21,7%	12.053 % 11,5	9.346 % 8,9	104.789 % 100,0
46-55 urte	Kopurua %	5.068 % 2,3	11.319 % 5,2	25.630 11,8%	92.986 % 42,7	47.732 21,9%	19.890 % 9,1	15.242 % 7,0	217.867 % 100,0
56-65 urte	Kopurua %	8.337 % 3,7	13.333 % 5,9	22.667 10,1%	109.899 % 48,8	45.862 20,4%	15.935 % 7,1	9.319 % 4,1	225.352 % 100,0
>65 urte	Kopurua %	3.034 % 2,0	11.530 % 7,7	14.884 9,9%	86.660 % 57,7	24.522 16,3%	8.987 % 6,0	546 % 0,4	150.163 % 100,0
Guztizkoa	Kopurua %	17.921 % 2,4	41.316 % 5,6	78.580 10,6%	343.435 % 46,5	154.048 20,8%	64.646 % 8,7	39.277 % 5,3	739.223 % 100,0

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Bestalde, banakako planetan, bazkideen % 8k bakarrik hautatzen dituzte kontserbadore gisa katalogatutako inbertsio-orientazioak, eta errenta aldakorren eta errenta aldakor mistoaren aldekoak % 30era iristen dira –aurreko ekitaldian baino puntu bat gehiago-. Azkenik, bazkideen erdiek, gutxi gorabehera, errenta finko mistoko inbertsio-orientazioak aukeratzen dituzte.

4.6. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen inbertsioen egitura

41. koadroa

Enpleguko eta banakako BGAEen inbertsioen egitura	ETXEKOA	EUROGUNEKO GAINERAKO HERRIALDEAK	EUROGUNEKO K EZ DIREN HERRIALDEAK	GUZTIRA
Errenta finkoa	5.939.935.858,17 €	6.784.313.177,48 €	2.714.079.630,74 €	15.438.328.666,39 €
Errenta finko pribatua	2.183.430.190,32 €	4.035.829.255,13 €	2.217.533.294,81 €	8.436.792.740,26 €
Errenta finko publikoa	3.756.505.667,85 €	2.748.483.922,35 €	496.546.335,93 €	7.001.535.926,13 €
Errenta aldakorra	814.637.858,91 €	1.344.364.135,21 €	1.105.508.131,60 €	3.264.510.125,72 €
Inbertsio-funtsak	2.793.493.322,17 €	6.385.922.931,75 €	762.335.934,97 €	9.941.752.188,89 €
Moneta-merkatuko funtsak	8.154.826,08 €	390.802.493,15 €	0,00 €	398.957.319,23 €
Errenta aldakorreko funtsak	2.227.260.726,52 €	3.265.515.021,89 €	401.871.044,00 €	5.894.646.792,41 €
Errenta finkoko funtsak	214.904.539,67 €	1.591.876.513,50 €	170.946.961,48 €	1.977.728.014,65 €
Funts mistoak	2.888.213,47 €	23.683.350,90 €	9.366.445,85 €	35.938.010,23 €
Higiezin funtsak	5.749.118,41 €	108.603.192,02 €	55.238.649,29 €	169.590.959,73 €
Inbertsio-funts libreak	38.831.931,49 €	654.216.899,25 €	14.166.365,49 €	707.215.196,23 €
Merkatu ez-monetarioko funtsak	295.703.966,53 €	351.225.461,03 €	110.746.468,86 €	757.675.896,42 €
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	1.473.622.451,09 €	8.158.333,22 €	45.885.067,26 €	1.527.665.851,57 €
Gainerako aktiboak	633.045.362,55 €	0	0	633.045.362,55 €
Aktiboen guztizkoa	11.654.734.852,89 €	14.522.758.577,66 €	4.627.808.764,57 €	30.805.302.195,12 €

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Enpleguko BGAEen eta banakako BGAEen funtsen % 38 etxeko merkatuan inbertituta daude (Espainiako estatuan); % 47 euroguneko herrialdeetan; eta gainerako % 15 eurogunetik kanpoko herrialdeetan.

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen funtsen erdia errenta finkoko tituluetan inbertituta dago (% 55 errenta finko pribatua eta % 45 errenta finko publikoan). Halaber, % 11 inbertituta daude errenta aldakorreko tituluetan; % 32 inbertsio-funtsetan; % 5 eskudirutan eta beste aktibo likido baliokide batzuetan; eta gainerako % 2a, berriz, aurreko kategorietan sartuta ez dauden beste aktibo mota batzuetan.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren (CNMV) irizpide bera erabiliz gero, errenta aldakorreko inbertsio-funts katalogatuak konputatuko lirateke errenta aldakor gisa (% 19). Aurrekoaren ondorioz, enpleguko BGAEen eta banakako BGAEen funtsen % 30 errenta aldakorrean inbertituta egongo lirateke 2024an, aurreko ekitaldiaren antzeko terminoetan.

4.7. Enpleguko BGAEen inbertsioen egitura

42. koadroa

Enpleguko eta banakako BGAEen inbertsioen egitura	ETXEKO	EUROGUNEKO GAINERAKO HERRIALDEAK	EUROGUNEKO K EZ DIREN HERRIALDEAK	GUZTIRA
Errenta finkoa	2.750.217.474,36 €	3.215.244.429,19 €	1.662.471.438,61 €	7.627.933.342,16 €
Errenta finko pribatua	1.190.362.933,23 €	2.298.724.043,53 €	1.392.800.163,24 €	4.881.887.140,00 €
Errenta finko publikoa	1.559.854.541,13 €	916.520.385,66 €	269.671.275,37 €	2.746.046.202,16 €
Errenta aldakorra	680.469.495,89 €	792.627.450,44 €	571.692.539,86 €	2.044.789.486,19 €
Inbertsio-funtsak	1.058.991.429,09 €	5.040.917.303,64 €	327.490.526,04 €	6.427.399.258,77 €
Moneta-merkatuko funtsak	0,00 €	337.636.623,46 €	0,00 €	337.636.623,46 €
Errenta aldakorreko funtsak	662.026.638,45 €	2.547.543.458,79 €	111.812.703,40 €	3.321.382.800,64 €
Errenta finkoko funtsak	94.906.784,35 €	1.165.208.188,04 €	79.281.747,66 €	1.339.396.720,05 €
Funts mistoak	741.226,70 €	17.301.651,02 €	9.366.445,85 €	27.409.323,57 €
Higiezinen funtsak	5.492.985,27 €	108.548.194,09 €	50.121.163,24 €	164.162.342,60 €
Inbertsio-funts libreak	37.785.317,02 €	652.831.407,94 €	14.166.365,49 €	704.783.090,45 €
Merkatu ez-monetarioko funtsak	258.038.477,31 €	211.847.780,30 €	62.742.100,40 €	532.628.358,01 €
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	521.258.402,06 €	1.457.261,41 €	37.067.710,42 €	559.783.373,89 €
Gainerako aktiboak	329.274.332,84 €	0		329.274.332,84 €
Aktiboen guztizkoa	5.340.211.134,24 €	9.050.246.444,68 €	2.598.722.214,93 €	16.989.179.793,85 €

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Enpleguko BGAEetako funtsen % 32 etxeko merkatuan daude inbertituta, % 53 euroguneko herrialdeetan, eta gainerako % 15 eurogunetik kanpoko herrialdeetan.

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen funtsen % 45 errenta finkoko tituluetan inbertituta daude, aurreko urtean baino puntu portzental handiagoan (% 64 errenta finko pribatuan eta % 36 errenta finko publikoan), % 12 errenta aldakorreko tituluetan, % 38 inbertsio-funtsetan, % 3 eskudirutan eta beste aktibo likido baliokide batzuetan, eta % 2 aurreko kategorietan sartzen ez diren beste aktibo batzuetan.

Errenta aldakorreko inbertsio-funtsei dagokienez CNMVren irizpide bera erabiliz gero, enpleguko BGAE guztien funtsen % 32 errenta aldakorrean inbertituta egongo lirateke 2024an; hau da, aurreko urtean baino puntu portzental bat gutxiago.

4.8. Banakako BGAEen inbertsioen egitura

43. koadroa

Banakako BGAEen inbertsioen egitura	ETXEKO	EUROGUNEKO GAINERAKO HERRIALDEAK	EUROGUNEKO K EZ DIREN HERRIALDEAK	GUZTIRA
Errenta finkoa	3.189.718.383,81 €	3.569.068.748,29 €	1.051.608.192,13 €	7.810.395.324,23 €
Errenta finko pribatua	993.067.257,09 €	1.737.105.211,60 €	824.733.131,57 €	3.554.905.600,26 €
Errenta finko publikoa	2.196.651.126,72 €	1.831.963.536,69 €	226.875.060,56 €	4.255.489.723,97 €
Errenta aldakorra	134.168.363,02 €	551.736.684,77 €	533.815.591,74 €	1.219.720.639,53 €
Inbertsio-funtsak	1.734.501.893,08 €	1.345.005.628,11 €	434.845.408,92 €	3.514.352.930,12 €
Moneta-merkatuko funtsak	8.154.826,08 €	53.165.869,69 €	0,00 €	61.320.695,77 €
Errenta aldakorreko funtsak	1.565.234.088,07 €	717.971.563,11 €	290.058.340,59 €	2.573.263.991,77 €
Errenta finkoko funtsak	119.997.755,32 €	426.668.325,47 €	91.665.213,82 €	638.331.294,60 €
Funts mistoak	2.146.986,77 €	6.381.699,88 €	0,00 €	8.528.686,66 €
Higiezinen funtsak	256.133,15 €	54.997,93 €	5.117.486,05 €	5.428.617,12 €
Inbertsio-funts libreak	1.046.614,47 €	1.385.491,31 €	0,00 €	2.432.105,78 €
Merkatu ez-monetarioko funtsak	37.665.489,22 €	139.377.680,73 €	48.004.368,46 €	225.047.538,41 €
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	952.364.049,03 €	6.701.071,81 €	8.817.356,84 €	967.882.477,68 €
Gainerako aktiboak	303.771.029,71 €	0,00 €	0,00 €	303.771.029,71 €
Aktiboen guztizkoa	6.314.523.718,65 €	5.472.512.132,98 €	2.029.086.549,63 €	13.816.122.401,27 €

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Enpleguko BGAEen funtsen % 46 etxeko merkatuan daude inbertituta, % 40 euroguneko herrialdeetan, eta % 14 eurogunetik kanpoko herrialdeetan.

Era berean, aurreikuspen-planak dituzten BGAEen funtsen erdia baino gehiago errenta finkoko tituluetan inbertituta dago (% 46 errenta finko pribatuan eta % 54 errenta finko publikoan), % 9 errenta aldakorreko tituluetan, % 25 inbertsio-funtsetan, % 7 eskudirutan eta bestelako aktibo likido baliokideetan, eta % 2 aurreko kategorietan sartzen ez diren beste aktibo batzuetan. CNMVren irizpide berari jarraituz, banakako BGAEetako funtsen % 27 errenta aldakorrean inbertituta egongo lirateke, aurreko urtean bezala.

Banakako BGAEetan, gehienbat errenta finkoan inbertitzen da (% 57), errenta aldakorreko inbertsioa enpleguko BGAEen kasuan baino txikiagoa da, eta eskudirutan eta beste aktibo likido baliokide batzuetan duen posizioa, 2024ko abenduaren 31n, % 7koa izan da, aurreko ekitaldian baino puntu portzental bat txikiagoa.

4.9. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen inbertsioa EAEn

44. koadroa

EAE inbertsioa - Enpleguko eta banakako BGAEen	1.880.063.045,08 €
Aktiboen guztizkoa - Enpleguko eta banakako	30.805.302.195,12 €
	% 6,10

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEek prestazioengatiko konpromisoei erantzuteko eratutako funts guztien **% 6,10** egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) duten jaulkitzaileen aktiboetan inbertituta daude. Ehuneko hori aurreko ekitaldikoa baino pixka bat handiagoa da.

4.9.1. Enpleguko BGAEek EAEn egindako inbertsioa

45. koadroa

Inbertsioa EAE - Enpleguko BGAEak	1.367.324.064,72 €
Aktiboen guztizkoa - Enpleguko BGAEak	16.989.179.793,85 €
	% 8,05

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Enpleguko aurreikuspen-planak dituzten BGAEen kasuan, ehuneko hori **% 8,05**era iristen da, eta banakako BGAEetan **% 3,71**ra jaisten da ehuneko hori, ondorengo koadroan ikus daitekeen bezala.

4.9.2. Banakako BGAEek EAEn egindako inbertsioa

46. koadroa

Inbertsioa EAE - Banakako BGAEak	512.738.980,36 €
Aktiboen guztizkoa - Banakako BGAEak	13.816.122.401,27 €
	% 3,71

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

4.10. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEek EAeren zor publikoan egindako inbertsioa

47. koadroa

Eusko Jaurlaritzaren inbertsioa - Enpleguko eta banakako	265.465.191,91 €
Aktiboen guztizkoa - Enpleguko eta banakako BGAEak	30.805.302.195,12 €
	% 0,86

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Prestazioengatiko konpromisoei erantzuteko aurreikuspen-planak dituzten BGAEek eratutako funtsek Eusko Jaurlaritzaren zor publikoan egiten duten inbertsioa ez da % 1era iristen.

48. koadroa

Inbertsioa Eusko Jaurlaritza - Enpleguko	191.862.307,32 €
Aktiboen guztizkoa - Enpleguko BGAEak	16.989.179.793,85 €
	% 1,13

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Enpleguko aurreikuspen-planak dituzten BGAEek % 1,13 inbertitu dute Eusko Jaurlaritzaren zor publikoan, eta banakako BGAEen ehunekoa, berriz, enpleguko BGAEenaren erdia da (% 0,53), 48. eta 49. Koadroetan adierazten den bezala.

49. koadroa

Inbertsioa Eusko Jaurlaritza - Banakako	73.602.884,59 €
Aktiboen guztizkoa - Banakako BGAEak	13.816.122.401,27 €
	% 0,53

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

4.11. BGAEen inbertsioak jasotzen dituzten EAEko enpresa nagusiak

50. koadroa

EAE-KO ENPRESAK	ENPLEGUKOA	BANAKAKOA	GUZTIRA
EUSKO JAURLARITZA	334.449.607,38	73.602.884,59	408.052.491,97
BBVA	336.053.352,68	143.757.698,35	479.811.051,03
KUTXABANK	169.193.468,08	219.179.816,72	388.373.284,80
LABORAL KUTXA	130.306.184,16	15.354.754,96	145.660.939,12
ORZAREN BITARTEZ EGINDAKO INBERTSIOAK	120.556.089,69	0,00	120.556.089,69
KUTXABANK BIZI-ASEGURUA ETA PENTSIOAK	83.321.847,15	778.089,50	84.099.936,65
IBERDROLA	81.874.974,67	30.325.941,86	112.200.916,53
TUBACEX	17.593.125,56	976.500,00	18.569.625,56
CIE AUTOMOTIVE	12.644.848,24	1.034.405,78	13.679.254,02
CAF	10.571.219,39	691.765,35	11.262.984,74
SVRNE MUTUA DE SEGUROS Y REASEGUROS A PRIMA FIJA	59.544,87	13.911.233,30	13.970.778,17
EROSKI	5.511.110,20	5.693.787,47	11.204.897,67
VITALQUILER	6.648.264,44	0,00	6.648.264,44
GLOBAL DOMINION ACCESS SA	5.597.526,49	792.608,72	6.390.135,21
IBERDROLA FINANCIACIÓN	3.650.366,08	2.279.986,97	5.930.353,05
GESTAMP AUTOMOCION SA	4.964.429,25	656.056,72	5.620.485,97
EAE-KO GAINERAKO ENPRESAK	44.328.106,39	3.703.450,07	69.450.571,66
EAEko inbertsioaren guztizkoa	1.367.324.064,72	512.738.980,36	1.880.063.045,08
Erakundearen guztizkoa	16.989.179.793,85	13.816.122.401,27	30.805.302.195,12
%	% 8,05	% 3,71	% 6,10

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

4.12. Administrazio-gastuak

BGAEek eskuratutako errentagarritasuna, inbertsio-estrategiaren bidez eskuratutako errentagarritasunaren arabera izateaz gain, administrazio-gastuen kontzeptuan aplikatzen den ehunekoaren mendekoa da. Inbertsio-estrategia bera izan arren, gastu handiago batzuek oso eragin kaltegarria dute metatutako kapitalean epe luzera.

Beraz, gastuei eustea faktore erabakigarria da, inbertsio-estrategia egokiarekin batera, bai finantzen eta bai bizi-zikloaren ikuspegitik –adin goiztiarretan behar beste ekarpen egiten hasiz–, kapital egokiak lortzeko eta behar adinako pentsio osagarri bihurtzeko.

2024an, beste behin ere, handia izan da enplegu eta banakako modalitateetako BGAEen gastuen arteko aldea. Jarraian emango dugun datua, administrazio-gastuen batez besteko ehunekoarena, banakako eta enplegu plan guztien administrazio-gastuen ehunekoaren batezbesteko aritmetikoa da. Aurrekoarekin bat etorriz, banakako BGAEen batez besteko administrazio-gastuen ehunekoa **% 1,15**era igo zen. Horrek esan nahi du % 9ko murrizketa egon zela aurreko ekitaldiarekiko, BGAEek beren bazkideei administrazio-gastu gisa kobratzen dizkieten ehunekoetan izandako murrizketa dela-eta, BGAEen arloko hainbat dekretu aldatzen dituen otsailaren 13ko 13/2024 Dekretua indarrean jartzearen ondorioz.

Ekarpen definituko enplegu BGAEen batez besteko administrazio-gastuen ehunekoa, bestalde, **% 0,83**koa izan zen; beraz, % 5eko beherakada izan zuen aurreko ekitaldiarekiko, kasu horretan ere aipatutako dekretua indarrean jartzearen ondorioz, zeinak etorkizuneko pentsio handiagoak eragingo baititu, bazkideen mesedetan. Aurrekoak esan nahi du banakako BGAEetan egotzitako administrazio-gastuen batez

besteko ehunekoa % 39 handiagoa dela enpleguko BGAEek ekarpen definituko enplegu-planetan egozten dituzten batez besteko gastuen ehunekoa baino.

Bestalde, enpleguko lau BGAE sektorialen administrazio-gastuen batezbestekoa – enpleguko BGAEen ondare osoaren % 80 dira eta modalitate horretako bazkideen % 92 biltzen dituzte– % 0,41ekoa da; horrek esan nahi du banakako BGAEek egozten dituzten administrazio-gastuen ehunekoak ia hirukoiztu egiten duela enpleguko lau BGAE sektorialetan egozten diren gastuen ehunekoaren batezbestekoa.

Alabaina, aurreko datu horiek beste ñabardura batzuk hartzen dituzte, baldin eta batez besteko gastu haztatuak kalkulatzeko badira kontuan hartuz zer ondare espezifikoren gainean aplikatzen diren. Horrela, banakako BGAEen aurreikuspen-planen administrazio-gastuen batez besteko haztatua % 1,27koa izan zen, eta ekarpen definituko enplegu-planen batez besteko haztatua % 0,43koa. Horrek esan nahi du banakako BGAEetan administrazio-gastu gisa egotzitako batez besteko ehuneko haztatua hiru aldiz handiagoa dela enpleguko BGAEek ekarpen definituko enplegu-planetan batez besteko gastu haztatu gisa egotzitako ehunekoa baino.

Alde horretatik, ikusten da kudeaketa kolektiboa duten enpleguko BGAEek abantaila konparatiboak dauzkatela banakakoen aldean. Eta abantaila hori oso garrantzitsua izan daiteke ondare metatuaren edo eragiten duen pentsioaren balioaren azken kalkulua egitean.

Kontuan hartu behar da hogeitaz ekarpenak egin ostean urtean errentagarritasun-puntu estra bat gehitzeak ekarpen-fasearen amaieran eskubide ekonomikoaren % 15 gehiago izatea dakarrela, eta horrenbestez, pentsio handiagoak edukitzea.

51. koadroa

BANAKAKO PLANAK

Inbertsio-orientazioa	Haztatu gabeko batez besteko gastuak inbertsio-orientazioko	Batez besteko gastu haztatuak inbertsio-orientazioko
Errendimendu finkoko bermatuak	% 0,65	% 0,56
Errendimendu aldakorrekoko bermatuak	% 0,84	% 0,73
Beste batzuk	% 1,35	% 1,30
Epe laburrerako errenta finkoa	% 0,74	% 0,65
Epe luzerako errenta finkoa	% 0,74	% 0,82
Errenta finko mistoa	% 1,23	% 1,28
Errenta aldakorra	% 1,43	% 1,46
Errenta aldakor mistoa	% 1,43	% 1,45
Batez besteko gastuen guztizkoa	% 1,15	% 1,27

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

52. koadroa

EKARPEN FINKATUA DUTEN ENPLEGU-PLANAK

Inbertsio-orientazioa	Haztatu gabeko batez besteko gastuak, ekarpen definitua duten enplegu-planetako inbertsio-orientazioaren arabera	Batez besteko gastu haztatuak, ekarpen definitua duten enplegu-planetako inbertsio-orientazioaren arabera
Beste batzuk	% 0,65	% 0,65
Epe laburrerako errenta finkoa	% 0,53	% 0,27
Epe luzeerako errenta finkoa	% 0,49	% 0,19
Errenta finko mistoa	% 0,90	% 0,42
Errenta aldakorra	% 1,15	% 1,10
Errenta aldakor mistoa	% 0,96	% 1,18
Batez besteko gastuen guztizkoa	% 0,83	% 0,43

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

5. AURREIKUSPEN-PLANIK GABEKO BGAE-AK

2020ko urtarrilaren 15ean, Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 2019ko abenduaren 26ko Agindua argitaratu zen, aseguru-jarduerarik egiten ez duten araubide bereziko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde bereizigabeen araudia garatzen duena.

Erakunde horiek bazkidearen ondasunei eragindako kalteak eta galerak estal ditzakete – ondasun horiek direnean etxebizitza, etxeko ostilamendua, lan-tresnak, ganadua, uztak, basoak, itsasontziak edo bere lan- edo lanbide-jarduerarekin lotutako beste edozein motatako ondasun–, bai eta ehorzketaren ondoriozko gastuak eta zerbitzuak ere.

Erakunde horien helburu bakarra izango da bertako bazkideek elkarri laguntzea, eta haien oinarritzko printzipioetako bat, berriz, irabazi-asmorik ez izatea; horrela, gizarte-aurreikuspeneko mutualismoa da haien osagai bereizle eta funtsezkoa, eta aseguru-elementu oro desagertu egiten da haien gizarte-helburutik eta estatutu-erregulaziotik.

Aseguru-jarduerarik gabeko erakunde-izaera eskuratzeko, erakundearen Batzar Orokorraren aurretiazko adostasuna behar da, eta Estatutuak aldatu egin behar dira.

2020, 2021, 2022, 2023 eta 2024an zehar, aurreikuspen-planik gabeko erakunde jakin batzuk aipatutako aginduan ezarritakora bildu dira.

Zehazki, azken ekitaldian, modalitate Bereizigabeko/Heriotzako BGAE bat Aseguru-jarduerarik gabeko/Ehorzketako BGAE bereizigabe bihurtu dira.

Jarraian, 2024. urteko daturik nabarmenenak ematen dira, aurreikuspen-planik gabeko BGAE guztiei dagozkienak, egun dauden aurreikuspen-planik gabeko erakundeen modalitateak kontuan hartuta.

53. koadroa

Modalitatea	Erakunde kop.	Bazkidea k	Balantze-zifra	Kuotak	Prestazioak
Gizarte-prestazioak	4	4.639	1.572.814,04	793.525,42	741.428,38
Bereizi gabe / heriotzak	1	863	178.843,56	40.876,00	15.288,02
Bereizi gabeko modalitatea, aseguru-jarduerarik gabe /	28	87.971	23.582.137,63	4.987.126,23	2.677.858,30
Bereizi gabeko modalitatea, aseguru-jarduerarik gabe / Sutearo	1	4.183	4.228.527,91	1.845.205,21	1.110.978,94
Bereizi gabeko modalitatea, aseguru-jarduerarik gabe /	1	135	1.619.550,75	231.156,81	125.612,96
Aurreikuspen-planik gabeko BGAEen guztizkoa	35	97.791	31.181.873,89	7.897.889,67	4.671.166,60

Iturria: Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza

Aurtengorako aurreikuspen-planik ez duten BGAEek babestutako bazkide-kopurua, iaz ez bezala, ez da 100.000tik gorakoa; beraz, % 3,1eko murrizketa egon da aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Modalitate guztietan, zertxobait murriztu egin da bazkide-kopurua. Hala ere, hiru erakunde gehiago daude 2023an baino. Gainera, ondare metatua % 4,6 hazi zen 2024an.

Ekitaldi honetan, kuoten zenbateko osoak prestazioen ordainketarena baino handiagoa izaten jarraitzen du. Oro har, mantendu egin da prestazioak kuoten % 60 inguru izatearen joera.

Bestalde, kuoten guztizkoa handitu egin da 2024an, eta prestazioak murriztu egin dira. Adierazi behar da gizarte-prestazioen modalitateari dagozkion kuotak 229.016,78 € murriztu direla, eta, prestazioei dagokienez, bereziki modalitate horretan bertan murriztu direla; aitzitik, areagotu egin dira Bereizigabeak/Ehorzketak, Aseguru-jarduerarik gabeko bereizigabeak/Sutearo eta Aseguru-jarduerarik gabeko bereizigabeak/Garraioak.

6. 2024KO GAINBEGIRATZE-LANA

Araudiak ezartzen duenaren arabera, honetan datza BGAEak gainbegiratzea: «Etengabe egiaztatzea erakundeek modu egokian jarduten dutela eta aplikatzekoa zaien araudia betetzen dutela, eta, horrez gain, egiaztatzea haien finantza-egoera, merkatu-jokabideak eta bazkidearen eta bere BGAEaren arteko harremanak».

Eginkizun hori BGAEen jardueraren jarraipena eginez gauzatzen da, bai BGAEek aldian-aldian bidaltzen duten Kontabilitateko Dokumentazio Estatistikoa jasoz eta berrikusiz, bai dauden erakunde-tipologiaren arabera dagozkien berariazko jarduketak eginez.

Jarraipen horren helburua da BGAEek bidalitako informazioa aztertzea eta, barne-eragiketetan anomaliarik detektatuz gero, haien funtzionamendua zaintzea.

Araudian jasota dagoenaren arabera BGAEek aldian-aldian bidali behar duten Kontabilitateko Dokumentazio Estatistikoari dagokionez, hauek izan dira 2024an egindako igorpenak:

BGAE zk.**Estatistika – eta kontabilitate-dokumentazioa bidaltzea**

	PPS (1)	HERIOTZAK (2)	Art. 24.2 (3)	Beste batzuk (4)	Guztira
1. h	68	26	4		
2. h	68	26	4		
3. h	68	26	4		
4. h	68	28	4	3	
Guztira	272	106	12	3	393

(1) Gizarte-aurreikuspeneko planak bideratzen dituzten BGAEak.

(2) Hilez gero, bazkideen ehorzketa-gastuak estaltzen dituzten BGAEak.

2019ko abenduaren 29ko Aginduaren 2. xedapen gehigarriaren arabera dokumentazioa barne hartzen du.

(3) 5/2012 Legearen 24.2 artikuluan jasotako prestazioak ematen dituzten BGAEak.

(4) Gainerako BGAEak.

Kontabilitateko Dokumentazio Estatistikoa igorri eta aztertzeak BGAEetan ikuskapena egiteko funtsezko oinarrietako bat ematen du; izan ere, aukera ematen du, besteak beste, kontabilitate-informazioan sartzeko eta inbertsio-zorroen banakapena tresnen arabera egiteko, estaldura-aktiboak tresnen arabera banatzeko, eta, halaber, arrisku biometrikoak beren gain hartzen edo interes-tasa bat bermatzen duten aurreikuspen-planak dituzten BGAEetan ezarritako kaudimen-ratioak betetzeari buruzko ereduen zehaztasuna egiaztatzeko.

Halaber, informazio zabala ematen du erakundeetan garrantzitsuak diren parametroen bilakaerari eta sendotasunari dagokienez, hala nola bazkide-kopurua, egindako ekarpenak edo emandako prestazioak eta BGAEen arteko mobilizazioak.

Emandako informazioaren azterketa xehatua egiteak oinarri gisa balio du, aipatutako gaiei buruz informazio gehiago eskatzeko, baldin eta horietan inkonsistentzia puntualen bat antzematen bada edota sistematikoki, lagin-izaerarekin.

Aldi berean, BGAEen azpitaldeei informazio espezifikoa eskatzen zaie, kapituluaren amaieran zerrendatzen diren garrantzi bereziko jarduera zehatzak gainbegiratzeko.

2024an zehar egindako gainbegiratze-jarduketa nagusiak, ohikotzat jotzen diren informazio-eskaera guztiak kontuan hartu gabe, hauek izan dira:

Gainbegiratze-jarduerak (EKDrik ez) 2024

Modalitateak	1.h	2.h	3.h	4.h	Guztira
Kontsultak (1)					
Eskakizun formalak (2)	1	2	1		4
Irekitako ikuskapen-prozedurak (3)	1	1	1		3
Itzitako gainbegiratze-prozedurak (4)	5	9	8	9	31
Hasitako zehapen-espedienteak		3		1	4
Amaitutako zehapen-espedienteak			2	1	3
Ikuskapenak					

(1) Horretarako ezarritako prozeduraren bidez erantzun zaien kontsulta formalak

(2) Eskatutako errekerimendu formalak, dagokion espedientearen bidez izapidetuak

(3) BGAE baten berrikuspen xehatua egiten hastea

(4) Amaitzeko berdina

Jarduketa horiei dagokienez, 2022an eman zitzaizen hasiera BGAE bakoitzaren analisisan sakondu nahi duten gainbegiratze-prozesuei, lehendik zeuden informazio-iturri guztietatik abiatuta, BGAE haien berezitasunak hobeto ezagutzeko eta araudira egokitzen diren egiaztatzeko.

Ildo horretan, iaz, aurretik aipatutako ohiko jardueraz gain, honako hauen jarraipen zehatzagoa ere egin zen:

A) BGAEen gobernu-organoetako bazkideen ordezkariak hautatzeko sistema, arreta berezia jarritz bazkide arruntei dagozkien delegatuak edo ordezkariak hautatzeko gaitutako prozedurei, zeharkako ordezkaritza erabiltzen denean; oso sistema arrunta da, horrelako erakundeetan handia izaten baita bazkide-kopurua. Azterketa horrek banakako edo enpleguko BGAEetara mugatuta egoten jarraitu du, non bazkide sustatzailea finantza- edo aseguru-erakunde bat den.

Oro har, ikusi da erakundeek interes gutxi dutela bazkide arrunten parte-hartzea sustatzeko haien gobernantzan, eta Estatutuetan jasotako eskakizun formalak betetzera mugatzen direla; ondorioztatzen da oro har ez dagoela hautagairik lanpostu horiek betetzeko, eta, modu subsidiarioan, bazkide sustatzaileak berak hautatutako bazkideei esleitzen zaizkiela.

Gardenagoak izateko eskatu zaie, eta bazkide arruntek BGAEen gobernu-organoetan parte-hartze handiagoa izatea sustatzeko. Gomendio horiekin batera, BGAEei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legearen Erregelamendua onesten duen urriaren 27ko 203/2015 Dekretuaren 8. artikuluko 4. apartatu berrian helburu horrekin berarekin sartutako lege-alaketak erantsi dira.

B) Era berean, BGAE ugarik administrazio-funtzioak eta funtsezko eginkizunak kanporatzean erabilitako formulak berrikusten jarraitu da, batez ere kudeaketa-baliabide propiorik ez duten erakundeetan. Oraindik ere gabeziak ikusten dira erakundeek kanporatutako jardueren jarraipena egiteko hartutako prozeduretan, urriaren 27ko 203/2015 Dekretuaren 63.4 artikulua arabera, eta gabeziak eta zalantzak antzematen

dira benetan egindako jarraipenaren inguruan. Arlo horretan ezarritako sistemak hobetzeko eskatu zaie.

Era berean, zenbait BGAEtan akatsak antzematen dira eremu honetan; izan ere, edo ez dute idatziz zehazten kanpora ateratako eginkizunak bere gain hartzen dituen erakundeak edo erakundeek jaso beharreko ordainsaria, edo ez dute behar den maiztasunarekin eguneratzen, BGAEa osatzen duten aurreikuspen-planen kopuruarekin eta ondarearekin lotzen den kasuetan. Inguruabar horiek ez dira oztopo ustez konprometitutako zenbatekoak ordaintzeko, eta jarduteko modu hori zehapen-espeditente posibleak irekitzeko oinarri izan liteke.

C) Era berean, baliabide propiorik ez duten erakundeetan, zorroak kudeatzeko edo ondarea kudeatzeko kontratuen kasu batzuk ere ikusi dira, talde ekonomiko bereko sozietateen arteko eragiketetan definitutako kasuen arabera finkatutako ordainsariak dituztenak. Ohartarazi zaie zaila dela halakoak araudiarekin bat etortzea, eta aldatzeko eskatu zaie.

D) Ehorzketako BGAEetan xehetasun gehiagorekin aztertu dira azpisektore honen berezko ezaugarriak, behin eta berriro ikusten baita oro har eskasiak daudela kudeaketaren eta barne-kontrolaren arloan; neurri handi batean, bazkide arruntak ez direlako erakunde horien kudeaketan inplikatzeko, eta kudeatzaileek ez dauzkatelako behar liratekeen bitartekoak eta ezagutzak. Sektoreari profesionalizazio handiagoa emateko neurriren bat hartzeko aukera aztertzen jarraitu da, edo arlo horietan gabezia handienak dituzten erakundeak biltzen dituen alternatibaren bat sustatzekoa.

Tamalez, 2025aren hasieran, jakin dugu kudeatzaile batek bereganatu egin duela erakunde horietako baten ondarearen zati handi bat; hasiak dira ustez iruzurtutako zenbatekoa berreskuratzeko jarduketak eta, hala badagokio, erakundea desegitekoak, erakundearen bideragarritasunik ez balego.

E) Halaber, banakako modalitateko 25 BGAEak gainbegiratzeko jarduketa espezifiko bat egin da, 2024ko uztailaren 1etik aurrera aplikatzekoa den administrazio-gastuen beherapena betetzeko betebeharra betetzen dela egiaztatzeko. Betebehar hori BGAEei buruzko hainbat dekretu aldatzekoa den otsailaren 13ko 13/2024 Dekretuaren bigarren xedapen iragankorreko 1. apartatuan dago araututa. Jarduera horretan, egiaztatu da ia erakunde guztiak egokitzen zaizkiola aipatutako araudiari; aurreikuspen-planen batean akatsen bat antzeman da, baina berehala zuzendu da.

Azkenik, 2024an, espedienteak zabaldu zaie lau BGAEri: bati arau-hauste astunagatik eta hiruri arau-hauste arinengatik. Kasuetatik bitan, arau-hauste arinagatik espedienteen xedea zen informazioa bidaltzean izandako justifikatu gabeko atzerapenak zigortzea; hirugarren kasuan, berriz, iraupen luzeko langabezia-prestazio bat kapital gisa kobratzeko eskubidea aitortzea, inguruabar hori justifikatu gabe. Espediente horiek ebatzi ziren inplikaturako BGAEek ordaindu zuten diruzko zehapena ezarritik.

Arau-hauste arinagatik espedientearen helburua zen BGAE baten aurreikuspen-plan bati zegozkion administrazio-gastuen aldaketa zigortzea, Finantza Politikako eta Gizarte Aurreikuspeneko Zuzendaritzaren nahitaezko izapidea alde batera utziz eta ondoren

BGAEn erregistroan inskribatzea saihestuz. Urte-amaieran, izapidetze-fasean zegoen expediente hori.